

EGĀN



1-2

1955

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Adiskide Berri: Berriketan.

Jon Mirande: I. Undina. II. Paranoia.

Aurre-Apraiz'tar Balendin: Ertori.

Dunixi: Gure Lurralde.

A. Irigaray: XVII garren mendeko iru eskutitz.

Etxaniz'tar Nemesio Apaizak Euskertua: Kontu Kontari, Mateo Falcone.

Antonio María Labayen: Elizanburu.

Iturria'tar José'k: Oargui'ren Sariketako lenengo saria.

J. M. L.: Boise'ko euskaldunak.

A. A.: Jan Edenak.

Apat Etxebarne: Naas-Maas.

L. M.: Zinema.

L. M., Villasante, E'tar Y.: Liburuak.

Berriketan

Escudero maisuak esan digu:

Egun gutxi barru joko dute berriz "Ileta" Bilbao'n. Escudero maisua aurrean daukagu zorroztu dizkiogun galderei erantzuteko prest.

—Noiz entzun aal izango dugu "Ileta" Donostia'n?

—Apiril-azkenean edo Maiatz leenean. Oraindik eztira gauzak zearo erabaki. Orkesta Bilbao'tik etorriko da noski.

—Jendeak egin dion arreraz pozik aal zaude?

—Bai orixe. "Ileta" luzea da, eta naigabetsua. Egitura berrikoa da gaiñera eta beldur nintzan mintzaera berri orrekin ez ote zan jendea miraz geldituko. Propaganda txarra ere izan zuen, ordu eta erdi irauten zuela esan baitzuten alde zurretik. Eta, jakiña, orrenbeste denboran geldi-geldi eta txintik atera gabe egon bearrak ez zuen inor alaitzen. Orkestakoak ere, kantaririk gabe ari ziran bitartean alegia, oi ez bezalako musika zala-ta, etzeuden oso lasai.

—Eta gero?

—Astekoan, entzuleak otz. Geroxeago, bi minutu baiño leen, aldegin zuen oztasunak. Luzaro gabe, malkoak ere ikusi nizkion bati baiño geiagori.

—Nola aukeratu zenduen gaitzat Lizardi'ren poema ori?

—Beste bat jo nuen begiz aurrenik, Lizardi'rena ura ere: "Urte giroak". Luzeegia izaki, ordea. Lau orduko bai, gutxienez. Orduan, labur-zurrean, "Ileta" autatu nuen, antziñako Euskal-erri'ko illetak gogorazten zizkidalako edo.

—Lan luzea izan zenduen?

—Langille geldi nauzute. Giroaz nekez jabetzen naiz. Gaiak bear

nituen: doiñuak, armoni-kolorea, eta giroa. Urte osoa bear izan dut nere baitan antolatzeko, eta paperean jartzeko beste urtebete.

—Euskal-doiñuek ba aal dute berezkotasunik? Ez ote dute beste errietakoen eiterik?

—Eztira noski denean berezko. Berezkotasun ori eztago doiñuetan, entzulearen barrenean sor-arazten duten gogo-giro berezian baikik. Euskal-aire zaarrak euskaldunagoak bide ziran, gureagoak, baiña erdalkeria sartu zaigu arrezkero musikan ere.

—Nola berezi, beraz, musikan, gurea dena eta eztena?

—Euskal-arima ezagutu bear. Euskalduna itz gutxikoa duzute, ixilla, barrenkoia. Eta zenbait doiñu zabal, andi-naiko —itz batez esateko, zentzukoi— eztagozkio ongi. Ezta beti erraz zer den eta zer ezten esaten. Ara neurria. Oso berezia dute gure kantek. Zortzikoa berria da, badakigu, baiña 5/8-ari alako bere gisako nortasuna eman diogu. Ez aal diozute iñoiz entzun Yehudi Menuhin'i Sarasate'ren "Euskal-kapritxoa"? Garbi dago eztena gurea ematen dion neurria.

—Ba aal dugu musikan euskal-eskolarik?

—Ez, eztugu; bear bai. Sortzeko dago. Euskal-kantak bildu dira: or daude, esate baterako, Salaberri, Manterola, Azkue, Bordes eta Aita Donostia'ren lanak. Armonia ere eman zaie. Ezta aski, ordea.

—Zer egin bear litzake, bada?

—Erri-kantak baetu, XVII'gn. mendetik onera batez ere itsatsi zaien erdal-autsa garbitu, gure izaerari dagozkion doiñuak berezi eta bear duten armonia aurkitu.

—Nola egin diteke ori?

—Euskal-kantak —nola esango nuke?— itxiak dira eta bi arrisku sortzen dira ortatik. Armonia erantsi eta dauden deudenean utzi dituzte batzuek. Beste batzuek, berriz, zabaldu nai eta zabaldu egin dituzte: zabaldu, eta erdaldundu. Edatu, bai, edatu bear dira, baiña gezatu eta urardotu gabe. Errikantek berek eskeintzen dizkigute gaiak: doiñu, neurri, azkenak. Gregorianoa dakarte auek gogora.

—Nondik dator euskaldunen artean nabari den musikarako gogoa?

—Ezta erraz esaten. Gerezkoa dugu ori. Kantak aotik belarrira irixi dira guregana. Errazak dira gaiñera, edonork kanta ditzakeanak... Jatorrizkoa dugula esan bearko dut berriz ere.

—Eta gure aurrekoetan Eslava, Gorriti, Goikoetxea?

—Gogokoena, azkenekoa dut: berebizikoa da. Orren "Deitorea"! Eslava musika-maisua izan zan batipat. Egin zituen liburuak ezinobeak dira. Gorriti'ri Italiar usaja dario. Armonista garaia, ausarta. Ortan Goikoetxea'ren gaiñekoa.

—Goikoetxea Perossi'ren parean jar ditekeala uste aal duzu?

—Perossi'k egin duena elizetan kantari-taldeak sor-araztea izan da geienbat. Ortarako egin zituen bere mezak: errazak, guretzat auko-

ran errazegiak. Geroago etorri diranen artean, Refice askoz ohea da. Goikoetxea oien parekoa duzute, kementsuago eta sortzailleago bearbada. Oso gogokoa dut nik Goikoetxea.

—Eta Stravinsky?

—Musikagille arrigarria. Orkestatzearen jabe, iñor ez bezala. Ezarri dioten izengoitia, “soiñu-injenieroa”, ederki dagokio.

—Badakizu zer esan duen: musika eztela gauza gogo-giroak edo aldarteak adierazteko. Zer derizkiozu?

—Ori, neretzat, esan ditekean kirtenkeririk andiena dela. Musika-ri biotz-giro eta sentimenduak sor eta gogorazteko aalmena kentzen badiogu, otz eta eskas biurtzen da. Eztut uste orrelakorik egin duenik Stravinsky'k, bere miragarritzko “Udaberriaren Sagara”-n adibidez. Eta teknika utsean, trebetasunean, uzten baldinbadu musika, beti izango du beste norbait bera baiño trebeago eta ausartagorik, ausardi soilla nagusi den ezkerero.

—Eta Schomberg?

—Schomberg mikrofonista. A priori-ko jokabideak ditu maizenik: buru-lana, ez biotz-lana. Arima kentzen dio musikari.

—Nola entzun bear da musika?

—Batzuek soiñua aditzen dute, besteek soiñuak ernatzen dien gogo-oiartzuna. Leenbiziko era, soiñuari soil-soillik adi egotea, da agian bikaiñeña. Alaz guttiz ere, nik beintzat musikak zerbait geiago adieraztea nai.

—Musikak, gogoaren gora-beeraz kanpora, gertakari bat adieraz aal dezake?

—Dударik gabe. Nere “Illeta”-n, esate baterako, ekaitza zeazkiro, fisikoki, adierazten saiatu naiz.

—Baiña entzuleak egillearen esan-nai berbera aditzen aal du? Ez ote da gertatzen entzule batek batera eta besteak bestera aditzea?

—Ez, bear bezala entzuten baldinbada. Denik gutxien oifua ere aisa antzeman dezaioke.

—Opera gainbeera dijoala uste aal duzu?

—Bai, gal-urren da, laguntzen ezpazaio.

—Balletak jarri aal du gal-zorian?

—Ez; balleta ere, opera bezala, laguntza-bearrean da. Garestiegia da eta eztu, ene ustez, etorkizun andirik. Opera laburtu naiean dabil-tza orain.


—Zer mailla dauka musikak arteetan?

—Gorengoa. Eztiote besteek orrek ainbat biotzari eragiten. Min-tzabide ori gafiñera guztiontzat da adigarri: poesian herriz nork gere izkera dugu.

Beste amaika gai ere aipatu ditugu. Escudero jaunaren leenagoko lanak —“Euskal-Kuartetoa” eta “Poema Sinfonikoak”—, gogo-bateko

dituen musika-gailleak —Beethoven, Wagner, Debussy, Ravel eta Stravinsky'ren izenak beintzat jaso ditugu— eta, batez ere, gerorako asmoak. Opera bat egin nai luke, euskal-opera bat, auxe du ametsik kutunena. Gaia bear, ordea, libretoa, eta laguntza-eske dator: arlote auengana zoritxarrez. Eske ori euskaldun guztien belarrietara iritxi-ko balitz! Amets-lañoz inguraturik agertzen zaigun aspaldi illun artan, euskal-jatorriaren iturburuan, jarri nai luke bere musikaren oiñarria. Jaio gabe geldituko ote da musika eder ori, euskaldunen artean ortarako kemenik eta ausardirik eztelako?

ADISKIDE BERRI



ZARRAK BETI DAUKA ZER ERANTZUN, GAZTEAK
BETI ZER IKASI

Domingo Agirre

Undina

Itxaso hurrunen harmonietan
uhinen alhaba jajo zinaden.
Geroztik zabilta zure orhoitzan
izaro gardenak ezin eriden,

Eguerdi handiko iguzki-sapak
erre izaroak. Hegoialderantz
itxasneskek dantzan —zure ahizpak—
dihardute hantxe, bainan zuk ahantz...

Eta, dela hantxe zohardi thipil
uhin geldituen gainen, gauetan,
itxasneskak oro elkhar maitez bil
daitez leihorreat, argizaritan.

Zuk ahizpen dantzak utzi dituzu,
irrikaz jin zara izotz-aldera:
elhur, iphar-haize, gaupe hedoitsu
hor dituzu... Gure ganat jin zara!

Geroztik zabilta gure iphartar
itxaso hotzetan. Noizetik behin
beha zagozkigu, bihotzean har;
eta guk so'ginda ba zoaz arin,

Ontzitan jarraikiz gizon-ametsa...
...bainan alpherretan: ihes joan zoaz
et' itxaslariak, beldur itxesa,
itzuli behar du arraun-indarraz.

Minetan daukazu giza-gogoa,
ainigma zarade ulhermenentzat.
Nor zara? Ala bethi gezurrezkoa?
Gogorapen, ala irudi soil bat?

II

Paranoia

Zarrun gor bat gathetan dilindan
Arimaren urkhabe goratik:
Euli beltzek botzeko firrindan
Jana gatik, bethi dago zutik.

Haur ilhortu baten ezurtoak
Neska-lehen-odolaz nahasiz
Egiten du sorgin den atsoak
Maitagailu bat, on dena guztiz.

Guk ordea zer dagigu hemen
Kantatuz goiz-arrats Miserere,
Minak orhoit —gure zahar amen—,

Eta zainduz, ez jakinik ere,
—Gure symbol eta gure itzal—
Urkhatu hau, urkhabeon martzal?

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

Erioi

Erio, zer dala-ta abil beti,
egaztada beltzetan uxati,
nere baranoan oles-urti?

Ankerra aiz, baina ez naukak txepel.
—Iri iges ezin, biziak goibel...—
Zorunik zekusat ire gibel.

Zorroztu dagikenean sorbatz
nere erraietan sartzeko garratz,
aurkituko ahal nok, loige, aratz.

Txau ukaini nai ziokat Iaube'ri
barren-altxor au, ba, azken opari,
lor dezadan betirako sari.

Gure Lurraldea

I Onura eta atsegiña.

Mendi egal batetik begiratzalle bi daude begira. Ikusgaia, biontzako, bata eta ber-bera da: emen arta-salla, urrena erreka, aruntzago baserria, pagadia, larra, urrun-mendiak, zerua, azkenik. Ona emen kuadrúa, paisajea.

¿Zer dio, batari, zer besteari, paisaje orrek? Ikusleetako bat, pintorea da; bestea, nekazaria. Bakoitzak, berekiko gogarteak erabiliko ditu bere baitan: nekazariak, laboreen etorria; pintoreak, kanpoaren aurpegia. Arek, artoen emana, onek, bixtaren edertasuna, eta begirale bieri, ikustaldiak zerbait esango die: nekazariari, onura edo probetxuari buruz (landare sendoa, artaburu mardula, lur ezea, giro epela, itxura opakorra) eta pintoreari, berriz, edertasun aldetik, goizaldi argitsua, margotasun bizia, eguzki-alde eta gerizpeak, erreka-zen zillar-izpia, urrutiko arkaitzen erpiñak, zeru gañeko odeiak.

Ona emen paisajeari dagozkion bi iritziak: onuragarri edo utilitarioa, eta edergarri edo estetikoa. Paisajeak, lurak berak dakarren onura, ¿zeñek ukatu?... bertatik jango baitegu. Bañon beste aldetik, edertasun utsaren aldetik, ¿ezeren onik bai-ote dakarkigu paisajeari begira jartzeak?

Animaren aldeko atsegiñetatik, izadiaren edertasunak demaigun poza bañon garbiagorik gutxi liteke. Aitz-tontor batetik beera begira jarrita, ainbat aldiz Jainkoa goraldtu izan degu, Bere eskuen egin-tzaren aurrean. ¿Ez al-da egia? Bada, izadi orren gozamenak dakarkigun eder-miñak, gauza ona bear du izan.

Bide ontatik dijoa paisaje-zalearen gogoá. Paisaje-zalea, izan liteke begirale utsa; izan liteke, gañera, idazlea; izan liteke pintorea. Pintorea edo idazlea ba-da, bere ikustearen eder-miñari antzematen

saiatuko da, lumaz naiz margoz. Ez dio ardurarik bere lanaren ondorena trebeagoa edo eskasagoa agertzeak; benetako gozamina egina bitartean nabaituko du-ta. Lana-bitartean darabilkien leia estuak, orretzek balio du guztia.

Paisaje zaleak, Jainkoa goraldtu, anima landu, bizitza alaitu eta gizartea onbidetu oi-du. Ogi utsez ez-da gizona bizi, Jaunaren aotik daron itzez baño; eta Jaunaren aintzak, zeru-lurreko edertasunak deritsoe, Egillearen itzak dira.

Gure Euskal Errian, ederrik asko baidegu, itxas-mendi bazter ontan; eder auek ere, aberastasanak dira. Lurraren zumoa, lurraren probetxua, gorputzari; lurraren ederrak, gogoari; biak, gizonarentzat, asegarri bearrekoak.

¿Nekazarja? ¿Pintorea? Dama bat ezagutzen det Gipuzkoan, etxe aundiko alaba eta baserri galant bateko etxeoandrea, gure paisajea iñor-gutxik bañon obeto ezagutu eta maitatuko duena. Nere solas auek irakurtzen baditu, ontzat emango ditulakoan nago; bada, dama ori, baserriarraz gañera, Gipuzkoako pintoreen artean, onenetakoa da, bostortza bañon trebeago, pintzelak erabiltzen dituena. Eta ziur nago, kanpoaren probetxuak bañon, kanpo oietxen eder-antzak geiago esango diola, herari begira jartzen danean.

DUNIXI



XVII garren mendeko iru eskutitz

Gure arteko Literaturan izkiribu zaar gutti arkitzen ditugu euskeraz: beraz garrantzi aundikoak dira paper zaarren artean agertzen direan xerrenda bakanak, eta ezin ditugu bazterrerat utzi. Emen argitaratzen ditugu XVII garren mendeko iru gutun, Azpeitiko serora edo moja batek eginak.

1622 garren urtean agitu zen prozesu eta auzi bat, Iruñe-ko Apezpikutegi-ko Artxiboan gordetzen dena. Bertatik ikasten dugu Errezillen bizi zen Mariana de Arzelluz andereñoa amodioetan zegoala Hernando de Loitia jaun batekin (Iruñekoa berez) eta Tolosan sendakin zegoanarekin.

Amodio oriek etzituen onesten andere gaiaren aitak; senar gaiak ekiten dio eta ebasgo edo rauto bezalako bat gertatzen da, Auzitegiko sareetan sarturik, Mariana ori erdi-serora bezala zegoalagotz, Azpeitiko komentu batean serora zegoan Maria de Jesus bere izeba batekin.

Auzian egertzen dira batzuen eta besteen arrazoiak eta eken artean guk argitaratzen ditugun Maria de Jesus orren eskutitzak.

Milla zertzelada gertatzen dira eta azkenik ezkontzen omen dira maitaleak bake onean.

Gure Historia-lariek ba dute non xilatu argitasun geiago ateratzeko, eta personak norberetzeko, aipagarriak baldin ba lira. Leenbiko bi eskutitzak argiagoko naiez, oraiko graphian ipintzen ditugu: bainan norbaitek itzulpen argiagokoak, obeki esateko ipintze garbiagoak igortzen ba dizkigu, bozik argitaratuko genituzke. Orretarako ere irugarrena uzten dugu irakurleen saioetara.

Gutunen euskara ezta ambatekoa, erratak ere baditu naski. Bizkai aldetikako verboen forma ezagun oriekin, Azpeiti aldekoa iduri du.

Lenengo eskutitza
Jesus M.¹

dirala guerequin. amen. çure bentura bada mendicuarequin ezcoçea, igracria ecarri beça leen: guero guçioa ayta orri eraguingodiogu antonioc ta don martin, eta or perdicaçen deban erretoreac: monja da estadu andiena: naybadeçu nic eztiçuc eragoçico.. çuc ustedeçu monjac debela contentu guçia. aen artean ere bada çerbayt. çeuere çeuere ayta ory ondoena beratucodeçu, ondo esan eguiçu beti. mu (?) iraglia dacarenean eraguingo diot badaçar. bitartean aytaren esanac so-friyacu paçiençiarequin Jaungoicoaren amoreç. ezteu emen çer ybili medicuac. iragria datorrenean estuco degu ayta ory. badaquiçu çer esaten dan gure artean. lenena bada guiçon ondradua; bigarrena odol garbia, au danean ezta beste bearic. egun osteguna. çure Maria de Jesus.

Bigarren eskutitza
Jesus M.²

dala gurequin. nic uste deçu lecua dedala escribiçecoç. argatic yçe esanion madalenchori eman mesede eguindigue ygaroçen dotoreac ta aytac ta arrebac: guçiac modu onecoac ostegunean emetic ygarcodira tolosara. dotoreac esan dit escribi deguiçudala curi: ala au eguiten det. çure carta reçibidu çebala; ez nabrabendasunic yçateagatic eztebala erançun. au da ondo pensatu; guichitan bitartecoac adicæa. orain paçiençiarequin ygaro yçaçu, aurqui carçela oretatic ateraco çera. egun astelena. çurea mari de Jesus.

Irugarren eskutitza
Jesus M.³

dirala gurequin. amen, carta bidaldu niñçunean esaten niçun aita jaun orrec çer esan didan: emen asco ygaro degu: nic esan diot, çuc monja nay deçula gaztigatu didaçula. esan dit; çatoçela egun baçuetan egotera. nic erançun diot; baçatoç ona ezçerala esse onetatik çeuere biçian ateraço. au esan diodanean aserratu da; ea ynor daducan çuc bayçe besteric. nic esandiot; yralgria ondo probatua ecarrico debala dotoreac. au esan diodanean asida gayzqui esaten. nic esandiot eztebala dotoreac culparic; erregen alaba albaleu edoçeynec nay leuqueala. esandit çuc deçula berac culpa: bayez esandiot. esandit; pagua eman dioçu. esandiot eztala orregati pagu gayztoric. beguie-

taco sua gayzto dala amodioa; ychudadala, esandit: gaztiga deguiçudala nayz tebala monja: çeran bera orayn serbideçaçula ta yçeguiocu; ezcaytu soco (joco?), onegui deriçu antonioac diona, bada estuco da: çuc barriz euci eçynda baletor. orduçoç yralgria nay neuque; çuc ezconduta berori juangoliçayte; gure jaunac animaoi confridanac probeygayzcala. aguindo serbiçen bioç osoac eguindodet. egun ostirala çurea Mária de Jesus.

Leenengo eskutitza

Jesus Maria dirala gerekin, Amen.

Zure bentura ba da medikuarekin ezkontzea hiraglia ekarri beza leen; gero guzia aita orri eragingo diogu Antonjok ta don Martin eta or perdikatzen deban erretoreak.

Monja da estadu andiena; nai ba dezu, nik eztizut eragotziko. Zuk uste dezu monjak debela kontentu guzia; aen artean ere bada zerbait.

Zeure aita ori ondoena beratuko dezu; ondo esan egiozu bati. Mu (?) iraglia dakarrenean eragingo diot, ba dakar; bitartean aitaren esanak sofri itzazu pazienziarekin Jaungoikoaren amorez.

Ezteu emen zer ibili medikuak. Hiraglia datorrenean estuko degu aita ori. Badakizu zer esaten dan gure artean. Lenena bada gizon ondradua; bigarrena odol garbia. Au danean ezta beste bearrik.

Egun osteguna. Zure Maria de Jesus.

Bi garren eskutitza

Jesus Maria dala gurekin. Nik, uste dezu lekua dedala eskribitzekotz. Argatik itze[z] esan njon Madalentxori emen mesede egin digue igarotzen Dotoreak ta aita ta arrebak: guziak modu onekoak; oste-gunean emetik igaroko dira Tolosara.

Dotoreak esan dit eskribi degizudala zuri; ala au egiten det; zure karta rezibidu zebala; ez nabarbendasunik izategatik ez tebala erantzun. Au da ondo pensatu, gitxitan bitartekoak aditzea. Orain pazienziarekin igaro itzazu; aurki kartzela orretatik aterako zera.

Egun astelena. Zurea Maria de Jesus.

Bizkai aldetikako *-deban, debela, gitxitan-* itzen gaiñera ohargarri ere dira Nafarroa alderagokoak diruditen *-egun, [gaur] sofri, eskribi, gaztiga, serbi,* era laburtuak, eta *gazitatu, edozefinek, juango lizaitte, eskribizekotz.* Egun, gaur, Ondarrabiraño joan bear da azken itz au entzuteko.

A. IRIGARAY

KONTU KONTARI

PROSPER MERIMEE'REN

MATEO FALCONE

Porto-Vecchio utzi ta ipar-ekzer-aldera ugarte-barruan sartzen ba-zera, mendi-bideak aldapan gora eramango zaitu. Bideitxur biurrietan aitz-koskor eta arru-leizeei iges egiñaz, iru bat ordu ibilli-ondoren, sastraka zabal baten oñean galdi zaite. Sastraka ori Corzega'ko artzai ta gaizkilleen gordeleku dezu. Corzega'ko nekazariak beren lurrak iñaurkiñez ondu-bearrik ez izateko, oso asmaketa jaso dute. Basoari su eman, ta ¡bapo! Suak bear baño oker geiago egiten ba-du, ainbat obeto; nolana, erretako zugaitz-autsez simaurtutako lurrak, egundoko uzta ederra ekarri bide-du. Galburuak ebaki-ekero, lastoa jasotzen zertan astirik galdu? Gelditzen diran sustraiak legortzen ezpadira, urrengo udaberrian erne berriak botako dituzte. Urte gutxi-barru zazpi-zortzi bat oin luzeko txara itxua jaikiko da bertan. Txara onj sastraka deitzen diote. Zugaitz eta landara-mota ugari badiuzu an, sasi-ekkontzan nastuak. Aizkora-laguntza gabe, ezin dezake gizonak andik bide-egin. Sastraka itxu artan, basa-adariak berak ere, ezin sar ditezke.

Norbaiti bizia kendu ba-diozu, zoaz Porto-Vecchio'ko sastrakara; ta an eskopeta, bala ta polbora lagun dituzula, ez dezu iñoren bil-durrik; ez dakizula, ala ere, aztu manta edo burusi illun bat artzea. Arekin ba-dezu illazki; ba-dezu estalki. Artzaiak esne, gaztai ta gazta-fiez ornituko zaituzte. Errira polbora-billa zoazenean izan ezik, ondo gordeta zaudeke an. Ildakoen senideak eta Zuzentza-zaiak etzaituzte billatuko bereala.

Mateo Falcone'k, ni Corzega'n nintzanean, 18...an, sastraka on-tatik legu-erdira zun bere etxea. Lurralde artarako aberats aski ze-nun gure gizona; bere artaldeei eskerrak, ezer egin gabe jator bizi zan. Artzai egongaitz batzuek aren ardiak larrerik-larre eramaten zituzten. Kontatzera noakizuen gertari au baño bi urte lenago, nik ikusi nuanean, berrogei ta amar urte-inguru bota nizkion begira. Or dezu, irakurle, gizon mozkote, baño gierrri bat; ille zutiak gaberdia

bezin beltz, sudur-kakoa irtena, ezpain meiak, begi aundi ta biziak, eta narrukoloreko azala. Añ tiratzalle onak ziran lur artan, begi zorrotzeko tiratzalletzat zeukaten guziak. Mateo'k, adibidez, etzion beñere postakin tirako basa-adari bati; baña 120 pausotara buruan edo bizkarrean joko zun naj bezela. Gabaz, egunez errez lan egiten zuan bere izkilluz. Corzega'n ibillia eztanak, siñesgaitz duke aretzaz konta zidaten trebetasuna. Larogei urratsera azpil bat añako paper garden bat jartzen zioten. Mateo'k, begiz joko zizun lenbizi; argia itzaltzen zizuten urrengo, ta illumpe beltzenean andik miñutura ¡pun! tirako zuan zuzen. Papera, lautik irutan zulatuko zizun kezka gabe.

Trebetasun arek izen aundia zemakion Mateo Falcone'ri. Lagun bezela ona ba-zan, etsai bezela bildur izatekoa zenuten; gañerontzean, mesede egiteko ta laguntzeko beti prest zegon, eta Porto-Vecchio'ko barrutian pakean bizi zan mundu guziarekin. Ezkondu zan errian, Corte'n, laster asko garbitu omen-zuan arerio bat... Gudaketan bezin iaioa omen etsai ura maite-leiaketan. Bein, lejo-aurrean ispillu baten aurrean bizarra kentzen ari zala, txispa-tunpa batek eratxi zun ustekabean. Mateo'ren tunpa ote-zan, zurrumurrua zabaldu zizuten auzoan. Ixil-arazi zuten auzia, ta Mateo ezkondu zan. Bere emazte Giuseppa'k lenbizi iru alaba eman zizkion. ¡Aren amorro ta narda! Azkenean, orregatik ere, seme bat, Fortunato izenekoa, sortu zitzairen. Onak zekarren berekin etxeko itxaropena ta izenaren iraupena. Alabak ongi ezkondu zitzaizkion; estuasun baterako, aien senarren saiai eta eskopetak eroso zetozkion. Amar urte besterik etzitzen mutikoa, baña argia zetorren.

Udazken-egun batez, oso goizo, or dijoaz andra-gizonak sastraka'ko zabaldi batera beren artalde bat ikustera. Fortunato'k aiekin joan naj zukean; baña zabaldi ura oso urrti zegon, eta gañera norbaitek gelditu bear zuan etxe-zai. Orregatik aitak etzion irteten utzi. Erabaki onen damurik izan ote-zuan, geroak erakutsiko digu.

Ordu batzuek geroago, Fortunato eguzkitara etzanda mendí urdiñak ikusten patxaran zegon. Aren burua, urrengo igandez osaba capora'aren etxean bazkaltzeko errira egin bear zuan joan-aldian zegon. Ontan, su-izkillu-otsak urra du ixilla. Jarri da zutik, eta begira du tiro ura entzun zuan aldera. Aldika ta urreratuz beste tunpa batzuek aditu zituan; andik pixka batera zabalditik Mateo'ren etxe-runtz zetorren bidetik, txapel mutur-zorrozdun gizon bat azaldu zan. Menditarrak zuten alako jazkera. Bizar-luze ta arlote jantzita, bere txispa makulutat zuala, nekez ta arrastaka zetorren. Iztarra bala batek zauritua zekarren.

Gizon ura "bandido" bat zan. Izen au ematen zioten legepean izentatua zegonari. Gabaz urira joana zan polbora' eroatera, ta itzultzean tiratzalle korsotarrak jarri zioten ostopcan sartu zan ustekabe. Bere

burua gogor aldeztuaz, aitzetik-aitzera gordeaz billa bear izan zuan iges-bidea. Baña gudariak gañean zituan, eta iztar zauritu arekin aien eskuetan bear zukean sastrakan sartu baño len.

Fortunato'rengana urreratu zan, esanaz:

—Mateo Falcone'ren semea al-aiz?

—Bai.

—Ni Gianetto Sampiero nauk, ba; ta *lepa-oriak* ondoren dizkiat. Ezin nauk ibilli, ta ezkuta nazak.

—Ta nere aitaren baimenik gabe ezkutatzen ba-zaitut, zer esango ote-dit gero?

—Jator joka dekala.

—Bai ote?

—Urrean dituk, eta ezkuta nazak aguro!

—Gure aita etorri arte itxoizu.

—Itxoiteko? Arrano demonio! Bost miñetu-barru emen dituk gudariak-eta... Aguro ezkutatzen ezpanauk, bertan garbituko aut!

Fortunato'k, batere estutzeke, erantzuten dio:

—Ta arrapatuko al-niñuzuke?

Ta jauzka egñiez aren eskuetatik iges egin zuan.

—I Mateo Falcone'ren semea ez al-aiz? Ire etxe-aurrean lotuta ikusi nai al nauk?

Mutikoa zerbait samurtu zan.

—Ezkutatzen ba-zaitut, zer emango didazu?— esan zion urreratuz.

Baituak gerritik zerion narru-zizku batean eskua sartu ta best liberakoa atera zuan. Aren bearra zukean polbora erosteko. Zillarra ikusi zuanean Fortunato'k irri-parrez jaso zuan.

—Etzazu bildurrik izan— esan zion Gianetto'ri.

Arrapastaka belar legor-meta aztertu zizun, an zulo bat irikiaz. Gianetto murgildu zan bertan; eta mutikoak, arnasa artzeko lekua utziaz, estali zuan bereala. Toki artan gizonik zegoken amesik ere ezin ziteken egin. Gañera, basati bati bakarrik bururatu zitzaïoken beste sorginkeri bat ere asmatu zuan: artu du katu-ama umeekin eta belar-metagañean jartzen ditu danak. Nork igarri belar ura aztertu-berri zanik? Inguruan odol-arrasto batzuek ikusi ta ondarrez ongi ezkutatatu ditu. Lan aiek bukatu zituanean patxara osoan eguzkitara etzan zan.

Miñutu batzuek gerotxoago, or datoz jaka illun eta lepa-oridun sei gizon. Sarjento bat nagusi zutela, Mateo'ren ate-aurrean gelditu dira. Sarjentoa Falcone'ren bestengusu zan. (Corzega'n aide-tarteak beste lekuetan baño zabalagoak dirala, kontu jakina da). Tiodoro Gamba zizun izena; ta inguruko gaizkilleak oso bildur zioten, aien ondoren ezpaitzan aspertzen, ez nekatzen.

—Egun on, lengusutxo—dio Fortunato'rengana alboratuz—, ederki azi aiz! Gizon bat emendik igarotzen ikusi al-dek oraintsu?

—Oraindik ez naiz zu aña azi, lengusu —erantzuten dio—, ez-entzun egiñaz.

—Aziko aiz. Baña esaidak: ez al-dek gizonik igarotzen ikusi?

—Gizonik ikusi dedan?

—Bai, tertziopelo beltzeko txapel mutur-txorrotx bat buruan, eta gorri-oriz argitutako jaka soñean...

—Txapel mutur-txorrotxa ta gorri-oriz argitutako jaka?

—Bai, erantzuidak azkar, eta etzak nere galderarik berresan.

—Gaur goizean bere zaldi Piero'ren gañean igaro da, bai, apaiz jauna, ta aita nola degun galdetu dit. Nik...

—A gaiztoko, ez ago i traste makala! Esaidak azkar Gianetto'k nora jo duan. Aren billa gatozek eta lepoa egingo nitek emendik pasa dala.

—Ditekena!

—Ditekena? ta ik ikusia gañera.

—Lotan gaudela igarotzen danik ikus al-diteke?

—Ona engoan i lotan egoteko. Tunpa-otsak ongi esnatua induten.

—Zure txispak orren zatatsiak dirala uste al-dezu, lengusu? Nere aitarenak askoz ots aundiagoa ateratzen du.

—Diabru alenak aparta, genanio madarikatu ori! Ondo baño obeto zekiat Gianetto ikusi dekala ta nork zekik eorrek ezkutatu ote-digukan ere? Zango bat zikan onik, eta emendik sastrakara errenka abiatzeko begi ernêgia dik. Gañera, odol-aztarnak emen galtzen dituk.

—Ta zer esango du aitak? —diotsa Fortunato'k irri gaiztoz—. Zer esan bear du, bera kanpoan dala gizonak gure etxean sartu dirala jakiten ba-du?

—Dollorkume arraioa! —esan zuan amorro biziz sarjentoak mutikoari belarritik elduta—. Ire mingain ori leuntzeko beste bide batzuek ba-ditudala ez al-dakik? Ogei bat sable-ukaldik itzegin-araziko liakete atzeko otzagatik.

Fortunato'k, irri gaiztoa galtzeke, bota zuan arroxko:

—Nere aita Mateo Falcone da!

—Ederki asko dakik, alproja orrek; Gianetto nun dan esaten ezpadidak, Corte edo Bastia'ra eraman azakedala. Leozpe ederrik ba-zegok an, ik oñak larrakillotan ditukala lasto-gañean lo egin dezakan; eta gillotinaz lepoa neurtzeko ere, ba-diat naikoa esku.

—Nere aita Mateo Falcone da.

—Sarjento —dio tiratzalle batek— Mateo'rekin ez gaitezeri asarratu.

Gamba nastua zegon. Etxe-barrua miatua zuten bere lagunekin aropean izketan egin zuan. Etzan lan luzea izan barrua ikustea; kortzegatar baten borda, gela laukotu bat besterik ez dezu izaten. Ango ikustekoak, mai bat, aulki ta kutxa batzuek, eizerako ta etxeko tresna

zerbaitzuk. Fortunato, katu-ama igurtzika, tiratzalleak nastuta ikusirik ez-titan zegon.

Sarjentoa ta bere mendekoak pipertuta zeuden. Soldadu batek, belar-tontorrera urreratuz, alperrikako lan bat egiten ari dan baten gisa sorbaldak jasoaz, baionetaz zaktakada bat eman zuan belarretan. Etzan ezeren txintik izan, eta Fortunato'ri etzitzaion arpegiko azalik batere zimurtu.

Sarjentoa ta aren taldekoak priji-priji egiñak zebiltzan; ekarri zuten bidez itzultzeko gogotan zabaldira begira zeudela, buruzagiak asmoa aldatu zuan. Zemai ta itz gogorak, ikusia zegonez, etzuten samurtuko Falcone'ren semea. Itz gozoz eta esku-erakutsiz ezer iritxi ote-ziteken? Merezki zuan ikustea.

—Lengusutxo —diotsa Fortunato'ri—, oso mutiko argia ator. Ik aurrera irtengo dek. Baña nerekin oso oker jokutzen ari aiz. Nere lengusu Mateo'ri miñik ez ematearren ezpalitz, nerekin eramango iñuket.

—Ba!

—Baña nere lengusua itzul dediñean, eta ire gezurren berri jakin, jorratuko au ederki.

—Bai ote?

—Ikusiko dek... Baña, mutil ona izan adi, ta edozer emango diat.

—Ta nik, lengusu, aolku bat emango dizut. Luzaro emen ba-zaude, Gianetto sastrakara elduko dala, ta orduan zureak baño begi obeak bearko dirala ari lepo emateko.

Buruzagiak amar eskutu-inguru balio zitzaken zillarrezko erlojo bat atera zuan sakeletik. Fortunato'k bitxiari begiak zorroztu zizkiola ikusirik, erlojoa galtzairuzko katetik zintzilik zuala, onela diotsa mutikoari:

—Apájo aundi orrek! Orrelako erlojo bat lepotik esegita eraman nai al-uke? Orduan bai ollarra baño arroago joango intzakela Porto-Vecchio'ko kalétan barrera! “Zer ordu da?” galdetuko likakete, ta ik erantzungo ieke: “ikus nere erlojoan.”

—Gizonago egin nadiñean, nere osaba *caporal'*ak emango dit orrelako bat.

—Bai, baña ire osabaren semeak oraingoz ba-dik bat... ez au bezin polita, baña... Ori, i baño gazteagoa dala bera.

Mutikoak asperen bat egin zuan.

—Tira, lengusu, nai al-dek ordulari au?

Fortunato'k begi-axala erlojo-gosez arrotuz, ollasko oso bat eskeintzen zaion katua zirudin. Ba-daki ondo irrika ari zaiola sarjentoa, ta ezta eskurik luzatzen ausartuko. Begiak alboratzen ditu, tenta-bidean ez erortzeko; baña aldika ezpañak miazten ditu, lengusuari ba-lesao bezela: neri onela parre egiteko etziok eskubiderik!

—Zergatik zabiltz nere bizkar parre egin nairik?

—Ez nauk jolasean ari, alajainkiá! Gianetto nun dekan esaidak, eta beste gabe irea dek ordulari au.

Fortunato'k siñiskor par-irri egin zion, eta bere begiak sarjentoarenetan josiaz aren itzen egia igarri nai zukean.

—Nere galoiak gal ditzadala, esan bezela ordulari au ematen ezpadiat. Nere mendekoak entzun ditek; ez diat nere itzik jango.

Orrela itzegiñaz, ordularia mutikoaren matrail zurbilla ia ikutze-raño urreratu zion. Onen barruan burruka bizia zerabilten erlojo-goseak eta ostatu-legeak. Bere bularra gogor jaikitzen zitzaion, eta ler-zori zeukala ematen zuan; bere eskuetan taketu zun bitxia, baña sarjentoak katea eskutik utzi gabe... Urdiña zan aren ondo biribilla...estalkia briztatu-berria...; eguzkitarra suzkoa zala esan bear... Zirikaldia gogorregia zan.

Fortunato'k jaso zuan bere ezkerre ere, ta sorbaldaz gain bere beatzez atzean zeukan belar-meta erakutsi zun. Gamba'k bereala igarri zion zer adierazi nai zuan, eta kate-muturra eskutik askatu zitzaion. Fortunato ordulari-jabe zan. Erbi bat baño ariñago jaiki eta belar-metatik amar bat urrats alboratu zan. Tiratzalleak aztertu zuten bereala belar-tontorra.

Gianetto'k, lurrera eratxia ta egur-txorta baten gisa lotua zeukatela, itzuli zun bere burua Fortunato'rengana:

—Zapuzkume ustela! —bota zion arpegira gorrotoz baño geiago destañez.

Mutikoak arengandik artutako zillarra lurrera jaurtiki zion; ba-zekin, ba, diru ura eukitzea etzegokiola. Baituak etzion begiratu ere egin. Odol otzez sarjentoari esaten dio:

—Gamba adiskide, ez naiz ibiltzeko gauza. Errira zeorrek eramana-razi bearko nazu.

—Lentxeago erbi bat baño ezkarago enbillean, ba —erantzun zion atxitzalleak gogorki. —Baña ago patxaran. Arrapatu autelako pozez, legu bat bidean nekatu gabe eramango iñuket bizkarrean. Gañera, adiskide, ire estalki ta adar batzuen bidez, ballarta bat egitera goazik. Crespoli'ren bordan naikoa zaldi arkituko diagu.

Tiratzalle batzuek gaztáin-adarrak jotzen eta besteak Gianetto'ren zauria sendatzen ari zirala, Mateo Falcone ta aren andrea, bat-batean, sastraka-aldera zijoan bide-kako batean agertu ziran. Emakumea gaztañez betetako zaku ikaragarri baten azpian okertuta, nekez zetorren. Senarra, berriz, eskopeta bat eskuan eta bestea zearka bizkarrean zekarrela, arro ta aisa zerraikion. Gizona gizon danak, izan ere, ez du izkillua beste zamarik ekarri bear aldean.

Gudariak ikusi zituztenean, Mateo'ri bera lotzera zetozela besterik etzitzaión bururatu lenbizi. Baña zergatik, gero, alako burutape-

nik? Mateo'k bai al zun, ba, juezetan zorrik? Ez, orixe! Izen ona zuan. Baña korsoa zan, eta menditarra; eta menditar korso gutxi zenituzten beren bizitzan txispa-tunpa bat, zaztakada bat edo beste orrelako uskeriren bat beren gain etzutenik. Mateo'k, beste iñork baño gutxiago zuan; amar urte ba-zituan, izan ere, eskopetarik iñoren aurka sutu etzuala; bada-etzpada ere artara beartzen ba-zuten, bere burua gogor aldezteko neurriak artu bear ziran.

—Emazte —esan zion Guiseppa'ri utzi zazu zakua, ta zatozkit laguntzera.

Emaztea bereala jarri zitzaion esanera; artzen dio bizkarretik zeraman txispa. Mateo'k eskuetan zekarrena kargatzen du, ta astiro etxeruntz aurreratzen da. Bideko zugatzei josita zijoan, begiak gudarrietan; erasotzen ba-zioten, errez ezkuta zitekean zugaitz-enbor lodienaren gibel, ta andik dantza zitzaken aurrera zitzaizkiokenak. Orpo-zorpo zetorkion emaztea beste eskopeta eta kartutxo-zizkuz. Burruka sortu ezker, etxeoandre jatorraren egitekoa, senarraren izkilluak kargatzea da.

Gamba, Mateo ain arretaz txispa jasota, beatza kakoan zuala tiratzeko gertu ikusi zuanean, larritu zan biziki.

Gianetto Mateo'ren aide edo adiskide, apika, zitekean, eta baituaren alde jokatzear sar zezaioken kazketean. Ala ba-litz, Mateo'ren eskopeta biren balak gudari biren gorputzetara mokau bi aora baño zuzenago joan zitezken. Ta aren aide izan arren, Gamba beraren kontra bial ba-litza gorantzi ajek?...

Zalantza artan, Mateo'rengana ausarki aurreratzea erabaki zun Gamba'k. Lagunkiro itzegingo zion gertatua kontatuz berari. Etzizaion laburra iduritu Mateo'renganañoko bidea!

—Kaxo, lagun zar! —deadar egin zion— Nolatan gera? Mateo, ire lengusua nauk.

Mateo, itzik atera gabe, gelditu zan; ta bestea izketan ari zitzaion neurritz txisparen kañoia poliki-poliki jasotzen asi zan. Sarjentoa ondoratu zitzaionerako zerura begira zeukan izkillua.

—Egun on, adiskide —esan zion Gamba'k eskua luzatuz— Aspaldi ontan ez iñudan ikusi. Bidez nebillela i ta ire emazte Pepa agurtzera nentorkizuen. Gaur asko ibilliak gaituk; baña gure nekeak ez dik negarrik merezi, arrai aundia eskuratu diagu-ta: Gianetto Sam-piero zakuan diagu.

—Jaunari eskerrak! oles-egin zun Giuseppa'k— Joan dan astean auntz bat arrapatu zigun.

Itz auek adituz, poztu zan Gamba.

—Alproja gizajoa! —dio Mateo'k— Gosea zukean, nunbait.

—Madarikatu ori! —dio Gamba'k erdi-pipertuta— katu-ama umeekin baño amorratuago jarki zaiguk; nere mendeko bat il zidak eta

ori naiko ez ba-lu bezela, Chardon kaboari besoa ausi zio; baña etzaiok orregatik ardurarik: prantsesa bai-dek, Gañera, diabruak ere billa ezin zezaken eran ezkutatu zaiguk. Fortunato'k lagundu ezpailigu, jai giñean ori billatzetik.

—Fortunato'k? —aopetu zuan Mateo'k.

—Fortunato'k? —erantsi zuan Giuseppa'k.

—Bai; Gianetto belar-meta artan ezkutatua zegokan, baña mutikoak aren txuloa erakutsi zidak. Bere osaba *capora*'ari ere esango zioat erakutsi eder bat bial dezaion bere laguntza-ordañetan. Epaikariari joango zaion agirian ere, an jarriko dizkiat ire ta semearen izenak.

—Milla arraiio! —aopetu zuan Mateo'k.

Gudari-taldearengana urreratu ziran. Gianetto ballartan etzana zegoen, biderako gertu. Mateo Gamba'rekin ikusi zuanean, parre gaiztoz artu zuan; gero, etxeruntz arpegia itzulirik, txistua bota zun ate-bururuntz, esanaz:

—Billau baten etxea dek!

Iltzeko gertu zegoen gizon batek bakarrik bota zezajoken Falcone'ri alako itzik arpegira; laster zukean gorputzean itz-truke bigarrenaren bearrrik etzukean sastakada bat. Ala ere, Mateo'k, kezka-pean zapaldutako gizon baten gisa, bere eskua bekokira eramatea besterik etzuan egin.

Fortunato, aita agertu zanean, etxera sartua zan. Aguro agertu zan berriro, esne-pitxar batekin. Begiak beraka zituada eskeñi zion lotuari.

—Ez adi urbildu neregana! —deadar egin zion baituak abots itzalez.

Gero, tiratzalle bati eskatu zion:

—Ekatzik edateko zerbait, lagun.

Gudariak bere ontzia esku-artean jarri zion, eta gaizkilleak lentreago tiroka burukatu zitzaion batek ematen zion ura edan zuan. Gero, eskuak bular-gañean lotu zezazkiotela, eskatu zien, ez bizkar-aldera, zeuzkan bezela.

—Etzanda eroso joatea atsegin det, —esan zien.

Bete zioten gogo ura; ondoren sarjentoak biderako agindua eman zuan. Agur bat egin zion Mateo'ri, onek erantzuteke; ta azkar-azkar zabaldiruntz jo zuten gudariak.

Amar miñutu-inguru joan ziran Mateo'k aorik zabaltzeke. Mutikoaren begiak aitagandik amarengana larri zijoazen. Aita, bere sugarbha ler-zori, txispa-gañean eskua, semeari begira zegoen.

—Ederki asi aiz! —esan zion Mateo'k ezagutzen zuana bildurteko eran.

—Aita! —zotin egin zion mutillak, negarrez bereganatuz eta bere oñetara auzpeztu nairik.

Baña Mateo'k deadar egin zion:

—Ez adi urreratu neregana!

Aurra zotinka gelditu zan aitarengandik ez urruti.

Aurreratu zan Giuseppa. Semearen alkandora-artetik erlojo-katearen muturra agiri zan.

—Nork eman dik erlojo au? —galdetu zion zorrotz.

—Nere lengusu sarjentoak.

Kendu zion Falcone'k erlojoa, ta arri baten kontra milla puska egin zion.

—Emazte —dio— aur au nereea al-da?

Giuseppa'ren matrail beltzekak arrillu-kolorea artu zuten.

—Zer diozu, Mateo? Ba-al-dakizu norekin ari zeran?

—Ala ere, neretarren artean au izan da lenengo saltzalea.

Fortunato'ren zotiñiak eta intziriak geitu ziran. Falcone'k etzion begirik kentzen semeari. Azkenean bere txispa-kertenez lurra jo zuan. Gero, bizkarrera jaso izkillua, ta Fortunato'ri jarraitzeko deadar egiñaz, sastraka-alderako bidea artu zuan. Aurrak jarraitu zion.

Giuseppa Mateo'ren ondoren lasterka urbildu zitzaion, eta besotik elduta:

—Zure semea da, gero! —garraxi egin zion bere begi beltzak senarrarenetan josiaz, ta aren barruko berri jakin nairik.

—Utzi zaidazu —erantzun zion Mateo'k—. Ni naiz onen aita.

Giuseppa'k bere semea laztandu zuan, eta negarrez etxean sartu zan. Andre Mari'ren iduri baten aurrean belauniko, otoitz berotan urtu zan. Bitartean Falcone berreun bat pauso joan da bidez aurrera; arru txiki baten aurrean gelditu ta jetxi da barrenera. Txispa-kertenez jo du lurra; samurra ta zula-bera dirudio. Bere asmoa burutzeko egokia dago.

—Fortunato, aitz onen aurrean jarri adi.

Aurrak esana egin zun, belaunikatuz gero.

—Esaitzak ire otoitzak!

—Aita, nere aita! Ez nazazu il!

—Esaitzak ire otoitzak! —dio berriro abots ikaragarritz.

Aurrak doi-doi ta zotinka Aita gurea ta Kredoa aopetu zitun. Otoi bakoitzaren azkenean, aita abots garratzez "Amen" bukatzen zuan.

—Oiek al-dituk dakizkikan otoi guziak?

—Aita, Agur Maria ta Krieleisonak ere ba-dakizkit.

—Luzeak dituk, baña etziok ajolarik.

Mutikoak abots itoaz bukatu zitun arrenak.

—Bukatu al-dituk?

—Arren, aita, barka zaidazu. Barkatu! Ez det geiago egingo. Nere osaba *caporal*'ari eskatuko diot eta barkatuko diote Gianetto'ri.

Izketan etzan agortzen; Mateo'k txispa bete ta sorbaldara jaso zuan, esanaz:

—Jaungoikoak barka dezaikala!

Aurrag erio-suarren jaiki ta aitaren belaunak besarkatu nai izan zituan; etzuan astirik izan. Mateo'k su-egin zuan eta Fortunato zerraldo hurreratu zan.

Ildakoari begirik bota gabe, semea lurperatzeko atxur-billa, etxerako bidea artu zuan. Urrats batzuek egin zituaneko, an zuan Giuseppe su-tunpaz ikaratuta zetorkiola:

—Zer gein dezu? —kurrikatu zuan.

—Zuzenbidea!

—Nun dago?

—Arru-barrean; lurperatzera noa. Kristau-eriotza egin du; meza bat esan-araziko degu. Gure suin Bianchi'tar Teodoro'ri gurekin bizitzera etortzeko esan dezaiotela.

ETXANIZ'TAR NEMESIO apaizak euskeratua.



EZTA AZTU BEAR, IDATZI GABE, IZKUNTZA ASKO
BIZI TA ZARTU DIRALA, BAÑA ITZEGIN GABE
BAT BAKARRAK ERE EZTUALA LUZAROAN
IRAUN.

Dauzat.

Euskaltzaindi-ko 6'garren solas-aldia

ANTONIO MARIA LABAYEN

Elizanburu

Bere bizitza ta lanak

«On a découvert qu'une œuvre littéraire n'est pas un simple jeu d'imagination, le caprice isolé d'une tête chaude, mais une copie des mœurs environnantes et le signe d'un état d'esprit».

(Taine «Histoire de la Littérature Anglaise»).

Gizon gutxi izan ditugu euskal-literaturan benetan omendun eta ospetsu. Eta ez da arritzekoa. Euskera utsezko elertiarren etekiña urria izan bait da.

Alare, gizon bakan oietan famatuenetatik bat Elizunburu izan dugu. Egun gure artean aintzakotzat ba-daukagu, bizi zelarik ere bere erritarrok ederretsi zituzten aren neurtitz eta kanta unkigarriak. Aoz-ao, belarriz-belarri Euskalerra guzira edatu ziran. Zer nai duzute ospe aundiagorik? Ori izaten bait zen antziñeko klasikoen barreia-bide aut.

Jean Baptiste Elissanburu-onela azaltzen danarren Sara'ko eliz eta erri-etxeko agirietan guk soil-soillik eta zeatzago Elizanburu deituko duguna, poeta ta neurtitzlari bikain eta goitarrenetako bat dugu. Ez bakarrik Lapurdi eta Benaparroa'n ezaguna, baita Gipuzkoa ta Bizkaia'n ere. Berak aberastu ta goratu zualakoz euskal-kantategia.

«Il mérita de passer dès les premiers pas pour le roi de nos poètes» dio ederki Pierre Lafitte idazleak (1).

Elizanburu'k sortu ta asmatutako itz-neurtu ta kantuak erri xeheak ikasi zitun beretzat arturik. Au dute poetak saririk garaiena: bere lanak izena gal eta erri guziarenak, ots! sasikoak biurtzea.

Ez da gezurra Mme. de la Villéhélio (2) J. Salaberry (3) eta J. Mante-rola (4) bere euskal eresi sailen bidez gure doñu ta neurtitzak edatu

(1) «Le Basque et la littérature d'expression basque», 1941.

(2) Souvenir des Pyrénées.

(3) Chants populaires.

(4) Cancionero Vasco.

izan zituztela. Bafñan oien liburuak zabaldu aurretik, eta irakurtzen ez zekitenen artean ere, Elizanburu'ren bertsuak ezagunak ziren.

Ostatu ta sagardotegietan oiukatzen zituzten ordurako "Ikusten duzu goizean" ahapaldi beretsua edo ta "Herrico besta biharamonean" solas bizi eta zorrotzak. Letradunek baño jende ez ikasiek Elizanburu lenago ezagutu zuten koplari aunditzat.

Karlista-gudatean aruntz-onuntz maiz zebiltzan soldadu euskaldunek, mugaz alde ontara beste aldeko kantu errikoi anitz zabaldu zituzten. D. José de orueta'ren liburu batean (5) irakurri dugu bere gaztaroan Bilbo'ko txakolindegietan "*Etxe zuria*" (sic) abestuzten zela. Ordurako iñork uste gabe araño eldua zen Elizanburu'ren omena. Eta ez Unibersidadearen bidez ala bearrez.

Ez dut lan ontan gure olerkari saratarra beste euskaldun koplari guziekin alderatu ta neurtu nai. Komparazio ori luzexkoa izango litzake. Gaia erabilliaz ordea, berez aterako zaizkit zenbait artezketa ta so-aldi Andre Poesia'ri buruz eta beroietatik irtengo da Elizanburu'ren goresmena.

Zergatik, galdegin dezake norbaitek, poeta batzuek alako arrera cna izan oi dute ta besteak ez dira onartuak?...

Sara'ko semea beinik-bein oniritzia izan zen erriaren senaz bat egñik zego-lako. Bere itz-neurtuak obeto ulertu zituzaten aire xahar eta antziñeko doñutan paratu zituen. Bertsu "naturalik" ez bada, Taine'k Lafontaine'n alegiak ausnartzen ari dela aitortzen duanez, gure olerkariak "berezeko" neurtitzak sortzen leia zan; ta bideari lotuta tankera errez ta taxuzkoa asma zuan bertan euskaldungoaren gogoa irauliaz.

Leen ere kritikari anitz jardun izan dire Elizanburu'ren bertsu-lanak luze-laburrean zila ta iritzi-miritziak ematen. Duvoisin ainho-arrak asiera eman zion. Onek lenbizi saratarraren gaitasun eta doaja agertu zituen. Gerora ordea, biek auzokide, biek kapitain, elkarrekin samurtu ziren eta Duvoisin'ek ez zun beti zuzen iritzi aren etorria (6).

Urrengo Vinson, Aita Lhande, Errotarena, Veyrin, eta P. Lafitte'k gorai patu dute Elizanburu'ren izena, Lapurdi aldean beintzat.

Bidasoz alde ontatik berriz José Manterola, K. Etxegarai, Gregorio Muxika ta P. Murlane-Mitxelena izan dire irizle nabarienak.

Azken aipatu idazleak itzaldi oargarri bat opa izan zion 1918 urtean Oñati'n egindako Batzar antzi-eziñean (7).

(5) Memorias de un bilbaino. E. Itxaropena. Zarauz, 1952.

(6) RIEV. 1929-30. Daranatz. Correspondance de C. Duvoisin.

(7) Congreso de Estudios Vascos. Tomo I. "La Poesia Vascongada en el siglo XIX."

Mourlane-Mitxelenak irakurgai gallen ortan iritzi zorrotz eta txalogarri asko adieratzen dizkigu Elizanburu'ren nortasunaz.

Kritika ta maxiaketaren ur sakonean murgildu aurretik, biografia antzera esan zagun gure gizona nun eta nolako izan zen. Ikus ditza-gun beraz aren zantzuak sortu ta il zen errian xehetasun billa gabiltzalarik.

* * *

Jean Batista Elizanburu 1828 garren urtean Dagonillaren 14'an sortu zen Sara'ko errian. Aita-ama Mitxel Elizanburu ta Juana Irababal izanik. Aita Aduana'ko guarden aintzindari zenuten eta jatorriz Hasparren aldekoa. Daranatz kalonjeak Elizanburu etxaldea Iri-sarri'ko "sala" bat zela dio. Etxe-nagusia omen (8). Ni aztarren bila ibillia nazu nere adiskide jakintsu D. Martin Elso'ren laguntzat, bañan damurik ez dugu garbitasunik lortu oraindaño.

Irisarri'ko erriko-etxean iardetsi digute ez dela baiñere an Elizanburu izeneko etxerik izan. Orobat erantzun dute Iholdi, Makea ta Heleta'ko erriek. Alare, azken erri ontan Elizanburutarren urratsak atzeman al izan ditugu eta ene baitarako eskualde ortan sortu bide zen gure poetaren aita. Agian "Zaldunbide" Heleta'ko etxean. Ama berriz entzuna dagunez Zugarramurdi'koa, omen...

1789 garren urteko izugarrizko Errovoluzio ta matxinadaren ondorengo bat Prantzia eta España'ren artean aduana jartzea izan zen. Eta ori gure mugetan egin oi zen sal-erosketa ta artu-eman kaltean izaki. Euskaldunek dakite ondoen, mukan zaldi gaiñean bait daude, aduana ezaren baljoa. Ta au jarritakoan nai ta nai ez kontrabando-aren langintza sortu bear izan zuten, biziko ba ziran

Orduan asi zen muga-zai ta kontrabandisten arteko jokua. Eta joku ontan saratarrok nagusi pillotan bezenbat.

Giro ortan egin zen gizon Yan Bathite "Piarresenea" etxeko mutikoa, Istilar auzoan. Etxe ori aspaldi suntsitua da.

Sara'ko auzoak Plazaz lekora auek ziren: Basaburua, Egimehar, Ehialar, Elbarrun, Istilar eta Lehen-Bizkai.

"Istilar" erribera edo errepira aldean dago Portua inguruan. Emen-dik igortzen zituzten itsasora burni, egur, ikatz, zuaitz eta gañerako mozkiñak. Egun ere bide gurutze ortatik doaz Sara'ko arat-unat guziak. Larrun, Ibaneli ta Atxuri mendien arte orrek Arane ballarataxoa deritza. Izen au daramate ango etxe anitzek: Arantipia, Aranderrea, Aranaberria, Aranbidea, Aranatxerberria, Aranaldea eta Arangurenea... Ba ote iñon aran politagorik?

(8) Curiosités du Pays Basque. Tome II.

Etxe oiek, Sara'ko beste geienak bezala eguzki aldera begira dau-
de, mendebalari gibela emanaz. Errekaz gora, Lekunberri zubitik
aruntz, Artxuri, Liazarrieta eta Lizuniaga aldera etxe ta bordak gu-
txitzen doaz, ugaritzen iratz-leku ta oianak.

Antziñan saratar asko itsas-gizon genitun. Donibane ta Ziburu'ko
ontzietan urrungo arrantzara eta itsas-gudu ta beste burruketan leia
ziren. XVIII garren mendetik onuntz itsasoko arrixkuari uko egin
eta geienek laborari, artzain edo beste langille arrunt eginik geldi
zaizkigu. Ausartienak, lehen korsario edo itsas-lapur zirenak, egun
kontrabandista ots! muga-lapur billakatu dira. Itsas-gizonen arrixku
ta neke-larrien orde ez dituzte jasaiten zenbait gau latzgarri ta illu-
nen jazarrak baizik.

Noizbait amaitu zen Napoleon mendeko gudaldi luzea. Errege-
tzaren lili idortuak birloretu ziren berriz. Elizanburu'k pakean igaro
zitun aurraldi ta gaztaroa. Erriaideak soldaduz libro gelditu zirelarik
etxe-jaun eta bordariak kartsuki lotu ziren beren zeregiñari, alorak
landu ta azienden begiratzeari. Bearrik alare!

Neskato-mutikoez orobat eskolara abiatzen ziren aski zintzo. Eta
Piarresenekoak ez ziran alferrenetarik, naiz piper bat edo beste egi-
ñik, gero Elizanburu'k "Piarres Adame" irakurgaijan agertzen digun
gisan. Gure "*Yan Battit*" ikasle sendo ta argienetarik izan zen ixtu-
riotan eta ortara arta zuten aren guraso ta orduan Sara'n zuten
"lehen errieta" Jean Mendiburu jaunak, Elizanburutiarren arras adis-
kide zena.

Gure mutikoa ain zetorren buruz ongi jantzi eta gogotsua, Sara'n
lehen ikaskizunak bukatuxeak zitula-ta Larresoro'ko Ikastetxe aun-
dira igorri zuten bigarren mallako ixturioak egitera. Larresoro'n La-
purdi'ko gazte nabarmenenak biltzen ziren Bakalaureat eta "humani-
dade" ta apaiztarako gertutzeko.

Elizanburu'k ere bide au artu zuen Sara'ko "Arizmendi" etxeak
ematen zuen "beka" edo laguntzaz balajaturik.

Ez zuen apaiztarako ez bokaziorik ez gogorik izan bañan an ika-
si zituan latin, erretorika eta gañerakoak ongi etorri zitzaizkion, nas-
ki, bai gero soldaduzkoan graduak irabazteko... eta bai euskal-bertsu
biribillak moldatzeko.

Ortiz gañera lagun onak egin zituen Larresoro'n eta oietan bat
aipa bear duguna: Grazian Adema, gero "Zaldubi" ospetsua.

Adin batetsukoak bi gazteak, senpentera eta saratarra, gero kalonje
ta kapitain izatera elduko zirenak. Adiskide min irauñ zuten beti erio-
tzaraño. Pierre Lafitte'k Larresoro'ri buruz egindako itzaldi ba-
tean (9) ikastetxe artan Grazian eta Yan Battite'k elkarrekin ira-

(9) Guré-Herria. 1928.

gan neke-lan eta jostetaz mintzatu zaigu. Bein ola bizi-molde latzari eztigarri zerbait igurtzi arren, bertsu batzuek bi mintzairetan asma-
tzea erabaki omen zuten.

Ona emen ahapaldi batto:

“Zein dohatsu emen, jeunesse fortunée,
Bortz orenak artean, la grasse matinée
Yaiki orduko lana; plus tard le déjeuner,
Obeki ditakeia commencer la journée?...”

Orduan ez uzste arren, egun dohatsuenak aiek izaki agian bi gaz-
teentzat... Laister berezi ziren elkarrengandik. Batek apaizgoaren bide
saindua jarraitzeko. Besteak ikaskizunak utziaz 1849 urtean armen
bizitz arriskatua artzeko.

Gure poetaren anai Leon zena aduanako guardetan sartu zen aita-
ren antzera. Beste Elizanburu bat, beroien lengusua bera, Michel ize-
nekoa errelijioso sartu zen eta ao-ederreko predikari bezala arras eza-
gutu ta maibatua izen omen zen Hasparne aldean. Inozenzio anaia.

Orain jarrai zaiogun Yan Battitari soldaduzkoan egin urrats eta
antziña bidean.

Soldadu mutil soil-soilla 21 urte zitularik sartu zen oñezko Erre-
ximentu batean. Bizkar gainean txalma utsa besterik ez zuala “le sac
sur le dos” prantsesen arabera... emeki-emeki graduak irabazten
joan zen. Amazazpi urte berantago, 1866 garrenean, 59 g. errexim-
entuan lieutenant aintzindari arkitzen dugu.

Ikustekoa izango zen sortetxera lenengoz uniforme ortaz jan-
tzia etorri zenean. Sara'ko Erriko-Etxean dagon dagerrotype ar-
gazkian jantzi ortan agertzen da, galtzak gorri, gerrian ezpata, bu-
ruan kasketa. Italia'ko guduaren ondoren gure gizona igotzen joan
zen: buru ta biotza argitu ta berotu zitzaizkion naski; Napoleo III
dirdaian pean grenadieretako kapitain mallara eldu zen. Larruzko
kapelu luze, ta bularra txingola zuriz apaindurik fier eta arro dago
uniforme ortan. 1912 RIEV aldizkarian ikus diteke irudi ori.

Bere militar biziak ezer gutxi dakigu ordea.

“Solferino'ko Itsua” deritzan bertsu unkiagarriak berak egin zi-
tuala ozta-ozta jakin dugu. Luzaroan uste izan zen poematxo eder
hori Salaberry zeritzan poeta batena zela, oartu gabe izen-orde de-
lakoa Elizanburu'k bere burua estaltzeko erabilli zuala.

Gai ortaz beste toki batean idatzi dut zerbait (10). Beraz irakurle
jakin-goseak bertan arki ditzake xehetasun geiago.

(10) Quien es el autor de “Solferino'ko Itsua”. Aclarando un viejo equi-
voco. Homenaje a D. Julio de Urquijo. Tomo II.

Nola nai den Elizanburu'k Prantzia'ren bigarren Imperioko goitibeitjak jarraitu zituan azken arte: 1870-1871 urte izigarri arteraño. Prusitarrok Napoleon III garrena zapaldu zutenean bere armada ta gudarozte osoarekin, gure kapitaina erori zen sekulako. Burbaqui jeneralaren mendean zegon eta atzeman zuten katibu Bezaine marexalak Metz'en armada errendi zuanean. ¡Sic transit!... Elizanbururentzat amaitu zen soldaduzkoa. Egak moztu zizkioten Imperioa'ren arranoari bezala. Ez nigarrik gabe! Bere biotz-minaren aundia "*Biba Frantzia*" olerkian oiukatzen du:

Urte gutti du gau ilun batez
lo zagolarik bere ohatzean

Ez digu beste inun solas ta guda-ixtoriorik aipatzen. Egipenetan ez jakin nolako izan zen; itzetan bai labor ordea. Pake-gizon genun nunbait eta ez jeneraletako sortua Harizpe bat antzo.

Guda doakabe ark oroitzapen mingotza utzi zion gogoan eta ordu txarrak lehenbaitlehen aantzi nai ditu. Ezpata ta gudari-jantzia bazterturik sorterrira itzultzen da egun obeen billa, lurrari atxikia...

Ordurako ezkondua zen Prantxa Eyheraburu Urruña'ko "*Geldiena*" etxeko alabarekin eta senar-emazteak Sara'n bizitzen jartzen dire "*Leku-ederrea*" plazako etxean.

Kapitain-erretiruz kanpo ogibide bat bear zuan eta pakezko-jueza Ezpeletako kantoi guziraiko izendatu zuten.

Ohorezko langintza orren bidez familia apal bederen azteko diña du eta leialki bete zuen beti bere arloa, eten gabe il arteraño 1891 garrenean 63 urte zitularik.

* * *

Lan onen azken aldera daude bildu al izan ditugun Elizanburu'ren olerki-poesi puska geienak, arek egiñak diralakoan ditugunak beintzat. Lerroz-lerro errenkadan ipiñi ditugu bakoitzari zenbatgarrren bat emanaz, irakurleek errez arki al izan ditzaten.

Sara'ko entzute aundiko etxe-jator batean eskura zidaten gutun batetik kopiatuak dire ia guziak; an ez zeudenak beste paper eta sailletatik artu eta aldatu nerera.

Guzira 18 ale dituzu. Bat baño geiago sartzeke utziko genitun eta norbaitek utsunea oartuko ba'ligu urrengo bātez osatzen aal genuke lazokeria.

* * *

Noiztandik asi zen Elizanburu bertsuak egiten? Goraxeago aipa dugu Larresoro'n ixturiantze zezola irri-itzneurtuak paratzen asia zela bere adiskide min Grazian Adema'rekin. Biek doaja zekarten eta zitu ederrik eman zuten gerora. Sorterritik urrun soldautza betetzen ari zelarik, erri-minak eraginda edo bertsu bear ori erne zitzaion. Biotza lasatzearren euskal itz-neurtuak egitera lotu zen.

Urte aietan Antoine d'Abbadie d'Arrast jakintsu euskaltzaleak koplakarietzako primak eskeintzen abiatu zen. Elizanburu'k lenengoz 1860'n nor-geiago ortara "*Harluhe*" izen pean bertsu-lan bat "*Gazte hltzera dohana*" deritzana igorri zuen sari nagusia irabazirik.

Sasoi artan Saboia'n zegon, Oñezko 54 Erreximentuan lieutenant. Ona emen Duvoisin iritzi-emaileak zer idatzi zuen olerkari berriari buruz (11):

"Il a été assez heureux sinon pour atteindre la perfection pour écouvoir les coeurs". Benetan unki garri, ezti ta itunak ditugu ahapaldi oriek erromantizismoaren arabera egiñak:

Hogoi garren urtera hari naiz hurbiltzen
Eta nere oinetan tomba dut ikusten.
Ni zertako mundura etorria nintzen
Ondikotz ez sortzea neretzat obe zen.

Gazte umezurtz baten negarra duzute. Guraso gabeko semearen oiiumiña. Beste maitasunik ezin atzemanik Eriori doi dagienaren otsa?

Ez, ez ez nau izitzen ez ni Erioak
Laister ken dezadala bizia Yainkoak...

Lamartine eta aren eskolako zantzuak alakoxeak ziren: belaxkeri sobe-raz kutsutuak. Andere Poesi arras egin zuten biotz-bera... eta gure saratarra barne... Urte berean Leon Elizanburu Jean Batiste'ren anai-ari ohorezko aipamena eman zioten "Dantzaria" lanagatik.

Ez ote zen izan berak egiña? Bada bere burua estaltzeagatik pseudonimo anitz artu zituen koblakari ahalkeak: Harluhe, Jean Vergez, Piarres Adame, Sallaberry, Lewy d'Arbiague, Doyarzabal eta abar... Izen anitz, batto ordea poeta.

Garaipenak bultzata, ezin etsi nunbait, ekiten dio berriz ere eder-lanari, ta poesi-puska berriak yalkitzen dire aren irudimenetik sagar-ondotik ale umotuak bait litzan.

"*Gazte hltzera dohana*" ren asmo ta gogaeiz "*Txori berriketaria*" deitua dugu, onela asiera duala:

(11) "Le Courier" 1860 Bayonne.

“Sor-lekua utzi nuen ondikotz ala beharrez
Yainko ona urrikalduz betiko nire nigarrez.”

* * *

Etxeko berri dakarkion txoriñoari mezu au ematen dio:

“Oroit adi ba txoria erri maiteko berriez
Nere aita, nere ama, nigarretan nik utziez.
Mintza akit ahaidez eta mintza lagun on hekiez,
Mintza nehor antzi gabe maite ninduten guziez” (12).

* * *

Guraso ta adiskide maiteez ezin ahantzirik ahapaldi bakoitzean biotzak gañezka aien berri galdegiten dio (13). Ongi neurtu, asmatu ta jositako itz-neurtuak naiz beti zerbait arrotz kutsu duten. Pitaka euskaldungoaren garra piztuko zaio barnean eta orduan elduko da Poesiaren goi-maillara. Erriko iturri garbitik edaten indartzen da erabat. Bestenaz irakurri “*Agur Herriarri*”. Erritik at ibillitako semearen agur bero ta zorionsua. Kantu ozen eta gardena:

“Urrundik ikusten dut, ikusten mendia
Zeinaren gibelean bait dut nik erria.”

Pozkarioz beterik, aurre zela bizitutako lekua ta erria nabaiturik berez etortzen zaio mintzora goresmen jator eta asperen osasungarria:

“Yadanik dut aditzen zorion andia
Ezkila maitearen asperen ezta.”

Ahapaldi ori zein baño zein egoki ta ederrago. Osorik ematea mezezi lukete ez ba'genuke luzatzeko beldurrik. Azken-agurra bakarrik aldatuko dut amaitzeko:

“Ezkila berriz diat bihotzean pena
herritik urruntzean bakoitzak duena
neretzat hik ba'uen jo lehen oreña
agian hik orobat joko duk azkena.”

(12) Txori berriketaria 1871-ko Sarako baltzaldian saritu zioten, pakea eginda bereala. Nere ustez Kasel (Alemanian) atxilotuta egon zanean sortua du. Doyarzabal izenpetu zuen.

(13) Vinson'ek “gracieux poème” deitzen dio. (Revue de linguistique, Paris 1872).

Sorterriari ain goraki opa izan zizkion itz-neurtuak aipatu ondoren, beste maitasun batek, ots! andreanganako-amoreak eraginda idatzi zituanen txanda dugu: "Aingeru bati", "Maite Zaitut", "Apecha ta Lorea" ta "Maria" izentzat dutenak.

Lenengo biak arras erromantiko oeran taxutuak, arruntak dira. Ez dute ez errikoi-giarrik ez ats-goitarrik. Aleunka maitekanta oberik gure kantategian ba-dugula nago.

Aitzitik, bi azkenekoak banan-banakoak ditugu. Bai azal eta bai mamiz gutxi ain gallenak, ene iritziz.

"Apecha ta Lorea" elkarrizketa xarmagarri bat da mitxeleta eta lore baten artean Idurimen eta alderatze pulitetan parez-pare, aurrez, aurre doazen bi bizitzen griñak azaltzen dizkigu.

Iñoiz bat, egingo ez dute zaletasun ta irritzak ordea. Maixko gizon-andre maitasun artean gerta oi dan antzekoa:

Neguz primadera zenean jabetu
Sasi baten hegian apecha zen sortu.
Leku berean bait zen lorea gertatu
gachoek elgar zuten bihotzez maitatu.

"Lorea" emaztekiaren irudi da ta Eolo'ri intzirinaka ari zaio maita-
tea urruntzen diolakotz...

Aize bihotz gabea zertako erritik
eraman duk apexa mendien gainetik?
Zertako duk urrundu maitearen ganik
egaztin gaixo orrek ez zian obenik.

Eta zorigaitz eta nigarretan amaitzen da ipuitxo.

1862 garren urtean sariztatua izan zen, lenengo prima irabazirik 22 bertsu-lanen artean. Duvoisin autatzaletatik bat izan zen. Beraz ederra zela aitortu zuan bañan Intxauspe'ri egindako letra batean esaten du: "Il paraît que la pièce est une imitation du français" (14). Gure poetak orduan ere estalirik gorde zuan bere burua, bañan gero ta ezagunago zuten. Alferrik zuen izen-ordeak aldatzea.

Urrundik usaia artzen bait zioten. Usaiaren gozoa!

(Badarraike)

(14) RIEV. Daranatz. Correspondance de Duvoisin.

OARGUI'REN SARIKETAKO LENENGO SARIA

ANDRE MARIAREN DEIKUNDE-IKUSTALDIA

Udaberri. Egunsentia, barne-atsegingarri. Galilea irriparrez, loretsu, Nazaret lilluragarri. Itxas-aizea laztan biguñez palmondoetan abeslari.

Etxetxo bat atea zabalik. Neskatxa bat loretegira dager: Andre Mari, liñu zuri ta ederrez jantzirik. Aizearen leunez buru-estalkia jolaslari dabilkio. Urrezko arrosa ondoan azken izarñoa poz-dardaraz ikusi ala, Mari Jainkoari otoizka asi zaio.

Bat-batez, argi dirdiratsu batek estaltzen du... Gabriel Goiaingerua aurrez-aurre itzlari:

—Agur Mari, graziaz betea, Jauna da zurekin. Bedeinkatua zu andre guztien artean!

Birjiña Maria zearo arritu ta txunditurik dager. Aingeruak, bere biotzikara nabaituaz, lasaitzen du:

—Ez bildur izan, Mari, Jainkoak atsegin zaitu-ta. Jaunak aurtxoan biarduko, eta Jesus izena jarriko diozu. Jainkoaren Seme deituko diote, Gain-Gaiñekoaren Seme! Zure lengusu Elisabetek ere aurra izango dula, esan bearra dizut.

Mari'k orduan:

—Ona emen Jaunaren mirabea, gerta bekida zuk esana!

Aingeruak, Mariaren gozo-apaltasun izugarriaz zoraturik, argi-egatan utzi zuan... Eguzkiak lenengo printza oriak jaurtitzen dizkio Nazareti. Egunsentia ederrenetan eder...

Mari'k bere barnean ixil-ausnartzen dirau. Ain zuzen, orrelako gerta erarik ez-baitzaio iñori esaten. Elisabet'gan du Mari'k bere gogoan, ta ikustaldi baterako gertutzen ari da: bai ba, aren zorionaren erdikide ta laguntzaille izan nai...

Eta ara Mari'k Nazaret utzi. Elisabet bere senar Zakariasekin Ju-

dean bizi zan, mendi-erri baten, Ainkarem izenez. Toki au ezberdiña dezu, masti ta oliñdoz esirik. Elisabet'en poz-atsegiña Mari berean ikusirik! Bearbada aldi luzea alkar ikusi ez dutela; gaiñera Elisabet'ek, goiargiturik, Mari Mesiaren Ama dala jakin daki, ta Gogo Gurenak arturik:

—Bedeinkatua, dio, zu emakumetan! Nor naiz gero nere Jaunaren Ama etorri datorkidan? Bai doatsu zu, sinistu baitituzu Jaunak zuri esanak!

Birjiña Marik:

—Ene animak Jauna goresten du, ta nere biotza pozez dardar Jainkoagan, Berak mirabe onen apaltasuna begitan izan baitu...

Mari, bere lengusuarenean iru illabete igarota, Nazareteko pakera biurtzen da.

ITURRIA'tar Jose'k



IDAZLE APAL ETA PRESTU GUZIAK IZKERA ARGI, LAU TA
ADI-ERRAZA ERABILTZEN DUTE GEIENETAN. INDI-OLLAR
ANTZEKO BURU-ARRO TA KOPETA-BELTZAK, BERRIZ,
IDAZTANKERA ZAIL ETA ILLUNERA JOTZEN DUTE BETI.

Vossler.

Boise'ko euskaldunak

Orain dala lau bost urte, "U. S. A."-ko "Chrysler" luze, eder bat gelditu zan, Donostiko Hotel baten aurrean. Hoteleko atezaiak lagunduta, Amerikano bi jetxi ziran. Bi gizon, oraindik sasoikoak, zaintsuak, lerdenak, masail gorri ta jipi txuridunak, zinean ikusten oituta gaudenetakoak. Hoteleko zuzendariak, nai aña argibide eman da gero, mutil batekin, gelak ikustera biali zituen. Andik laister, mutilla, begiak zabal zabalik eta zearo arrituta, zuzendariarengana zetorren: "Jauna: Bi Amerikano oyek, euskeraz ari dira". "Ago ixillik, txotxolo ori —erantzun zion zuzendariak— Amerikanoak azkarrak dituk, baña ez orrenbesteraño. Inglesez egiten ditek oyek eta iri euskeraz iruditu, ez bata ta ez bestea aditzen eztekalako".

Baña, arrigarria benetan! Antxe zeuden Amerikano biak, berriz, eta arrazoia zuen mutillak. Gizon aiek, euskeraz itz egiten zuten beren artean! Ta ez nolanaiko euskera zatarra gero! Ura itz jarioa! Ura "xi" ta "xa" erabiltzeko erraztasuna! Bizkaiko izketa garbi jatorra, Urkiolako Aita San Antonio erromerian aditzeko moduko euskera gozo guria. "Baña —galdetu zien zuzendariak— Amerikanoak eta euskeraz? Nungo erritakoak zerate zuek?" "Ipar-Ameriketako euskaldunak gera", erantzun zuten patxada osoan lagun biak batean. "Ipar-Ameriketako euskaldunak?". Bai ba; Boise'ko euskaldunak".

Lagun bi ayetako bat, Donostian gelditu ta gure artean bizi da. Alkarren lagunak gera. Bizkaiko semea, mendi tarteko baserri batean jayoa, ia berrogei urte Ipar-Ameriketan igaro arren, aruntzakoan bezin euskaldun utsa biurtu zan. Alkar ikusten degunean, euskeraz egiten degu beti. "EGAN"-erako lantxo bat gertatu bear nuela ta nere lagunaz oroitu nitzan. Sarri irakurri ditugu periodikuetan, abek beze-

lako albisteak: "Ipar-Ameriketan, artzai euskaldunak nai dituzte", "Berreun artzai geiago atera dira Bilbotik Boiserako". Boiseko euskaldunen berri izateko, nun laguntzalle ohea, berrogei urte bertan ibillitako euskaldun jator ura baño? Esan da egin. Nere lagun billa abiatu nitzan eta orra gure alkarren arteko galde-erantzunak:

—Erri aundia al da Boise?

—Bai, Idaho'ko erri nagusia da. Azken urte abetan aunditu egin da oso. 1915'garren urtean, ni ara eldu nintzanean, 10.000 bizi-lagun zituen. Gaur, 135.000.

—Giro onekoa?

—Otza neguan eta oso beroa udan.

—Zenbat euskaldun dira errian?

—4.000. Geienak bizkaitarrak eta aben ondoren, gipuzkoarrak.

—Eta naparrak eta Bidasoz beste aldekoak?

—Gutxi. Oyek Nevada ta Californira juaten dira geyago.

—Nik, Ipar-Ameriketako euskaldunak, Boiserako joerarik aundiena zutela, alegia, Boise, lurralde ayetako erririk euskaldunena zala uste nuen; egia al da?

—Bai, Ipar-Ameriketako euskaldun guztiak, edo geienak beintzat, urtean bein Boisen biltzen dira. Billera orretarako, Estadu askotatik juaten dira, ez Idahotik, bakarrik, baita California, Oregon, Nevada, New York'etik ere.

—Eta beti, egun berean egiten al dute billera ori?

—Bai, beti Abenduaren 29'an. Salon Miramar deritzaion dantzatokia izaten de jaja. Gabeko 9'etan asi, eta goizeko ordu bata ta erdi arte, dantza naikoa egiten da an, txistu ta tanboliñen soñuaz, gure erromerietan oi dan bezela.

—Euskaldun asko biltzen al dira Boisen egun orretan?

—12.000 bai.

—Ba al dago Boisen, euskaldunentzako "Club" edo biltoki berezien bat?

—1953'garren urtean bukatu zan ango Euskal-etxea, Groupe Street'en. Oso ederra da.

—Eta Boisen bai dago euskaldunik, erri agintarien tartean?

—Ba dira batzu batzuek. Danak bertan jayoak. Idaho'ko Estaduak ba ditu Ipar-Ameriketako Gobernuan, bi ordezeko edo errepresentante. Bietako bat, euskalduna da. Zenarruza du izena. Polizien buru egiten duena herriz, Gus Urresti, Boisen jayotako beste euskaldun bat.

—Nolakoa da ango artzaien bizimodua?

—Gogorra. An lan asko egin bear. Artalde-nagusiak —"ugazabak" zion nere lagunak, bere Bizkaiko berbeta jatorraz— "Well Groves Association" esaten dioten Bazkunean batuta daude. Artzaiak bear

dituztenean, Bazkun orretan egiten dute beren eskabidea. Bazkunak berriz, gobernuari, artzaien sarrerako baimena eskatu egiten dio eta baimena jaso ta gero, ordezko bat bialtzen du Bilbora, artzai-gaien billa. Artzai-gaiak, Bilbon bertan egiten dituzte beren kontratuak. Bi urtetako gutxienez. Boisera eldu ta bereala, nor bere nagusiaren "Rancho"ra dihua. Artalde-nagusiak ez dira bizi izaten beren "Rancho"-etan, erri aundietan baizik. Boisen, Nampa'n eta beste orrelako errietan. An nagusi-ordezko bat izaten da eta onen mende lan egiten dute artzaiak. "Rancho"-ak, olezko etxeak dira, "bungalow house" oyetakoak. Bertako bizi-lagun guztiak, alkarrekin bazkaldu ta apaldu egiten dute.

—Zein illabetetan izaten dira artzaiak "Rancho"-etan, eta zeintzuetan "Rancho"-tik kanpora?

—Gabonetatik asi ta Jorrailla —Apirilla— ren erdiraño "Rancho" an egoten dira. Jorraillaren erdian ateratzen dira kanpora beren artaldeekin. Bi lagunen artean egiten dute artalde bakoitzeko lana. Bietako bat "artzai" da, bestea "kanperua". Bigarren au, artzaiaren mende dago alegia, bietan, artzaiak da nagusi edo agintaria. Kanperuak belarra nun dagon ikusteko eginbearra du. Ango lur sallak, ez dira Euskalerrikoak bezelakoak. An "Rancho"-tik kanporako lurraldeai "desierto"-a esaten diete. An ez dago ez urik, ez kerizperik. Artzaiak eta kanperua zaldiz ibiltzen dira "desierto"ko landa zabaletan barrena, Gobernuak "reservako pinaleak" zabaldu arte. Berekin batean, bi zaldiko gurdi aundi bat eramaten dute. Astean iru aldiz, kamioi baten bitartez, "Rancho"tik, ura bialtzen zaie. Ura, jakiak eta beste bearreko gauzak. Uztailan —Julioan— "pinaleak" edo piñu-barrutiak irikitzen dira eta ara dijuaz artzaiak. Piñu-baso oyek, mendietan daude. "Rancho" bakoitzak zati berezi bat du basoan. Au bai leku ederra, giroa eta itzaltsua udarako! Ango ibai eta errekatxoak! Ango amorraiak eta izokiak! Udazkenerako, "desierto"ra berriz eta Gabonetarako "Rancho"ra.

—Zer soldata irabazten dute artzaiak?

—180 dolar illean.

—Zenbat ardi zaintzen ditu artzai bakoitzak?

—2.200.

—Emengoak bezelakoak al dira ango ardiak?

—Askoz aundiagoak. Ba dira 90 kilokoak ere.

—Alderdi artako artzai guztiak, euskaldunak al dira?

—Ez. Ba dira bertakoak eta baita Noruega, Suiza ta Irlanda'tik juandakoak ere. Griegoren batzuek ere bai, "Rancho"-nagusien artean, Griegoak bai dira. Lan egin bear danean, iñori ez zaio nungoa danik galdetzen. Amerikano apur bat itz egin ezkeru, danok Amerikanoak!

—Txanpon asko biltzen al dute gure ango artzaiak?

—Ba dira bai, poliki aurreratu dutenak. Gaur Boisen bizi diran euskaldun geienak, len artzai ibilliak dira. Beren artean, ba dira, "Rancho"-nagusiak; Hotel-jabeak; Bankuetan lan egiten dutenak; egur-saltzalleak, eta abar.

—Nun aditzen da euskera geiago, Boisen ala Donostian?

—Boisen.

Aupa Idaho'ko artzai euskaldunak! Neguan, Gabon-aurreko illu-nabarrean, zuen artaldearen ondoan, zaldiz, "Rancho"-ra abiatzen zeratela, urrundik, aize bolada batek eramana bezela, ez al dezute beñere entzun, onelako soñu ezti samurra?: "Ator, ator, mutil etxera..." Eta garai berean, Euskal baserriren batean, Gabon-kanta ori bera entzunaz, iñork ez ote du, agian, bere biotz barruan aditu, gero ta biziago, urrutiko zaldi baten oiñ-otsa bezelako soñurik?

J. M. L.



JAN-EDANAK

Beste errietan bezala, Euskalerrria'n ere baditugu janari ta edari berarizkoak. Baita jaki-gertuera bereziak ere.

Gaur lurbira guzian ezaguna da, esate baterako, bakallaoa Bizkaia'ko erara, "Cotelettes d'agneau a la Navarraise"-n prestaera ere, badira onezkeru irurogei-bat urte Escoffier aundiak bere "Le Guide Culinairre" ospetsuan ezarri zuala.

Txipiroiak, txitxardiñak, kokotxak, errosela edo marmitakoa Euskalerrri'ko erara, egungo egunean Madrid'ko edo Barcelona'ko jatetxe dotorenetakoetan ere badakizkie maneatzten.

Gañoontzean, beti izan ditu gure erriak entzute aundiko jakiak. Adibidez, txit ezaguna da Archipreste de Hita'k "El Libro del Buen Amor"-en (1389) Bermeo'ko bixiguetaz egiten duan aipamena. Lengo mendean, El Doctor Thebussem'ek "La Mesa Moderna"-n (1888) esaten digunez, Vergara'ko kapoia ere oso ederretsiak omen ziran orduko jale onen artean. Baita noski, Angel Muro'k (1890) dionez, Araba'ko erreketako amarrak, batez ere Alegria de Dulanzi inguruko errekatxo batekoak.

Erronkari'ko gaztaren ospea berriz are zarragoa ta zabalduagoa da. Gipuzkoa'ko antziñako prantzi-porruak ere, etziran noski izango bear bada Iztueta "baba-loreak" dion bezain laudagarriak, baña, tira, aipamentxo bat bederik merezi dutela emen, derizkiogu.

Baña gerta liteke ordea antzin-antziñan —orain bosteun edo seireun urte, esate baterako— euskaldunok jan-edan kontu auetan atzerasamar ibilliak izatea.

Eztakigu egia izango dan Enrique de Villena'ren esana, baña onek bere "Arte Cistoria"-n (1423) dio, bizkaitarrak, larrapoteak, au da baso-langostak, lasai jaten zituztela...

Txakoliña ta sargardoa ditugu, enura gabe, gure erriko edari eza-gunenak. Jakiña, metalura eta... bestelakoak alde batera utzita. Baño ardo egiazkoa ere, Euskalerrri-barrunbean gertutzen da. Ta ugari ta ona gañera. Benaparroa'ko Irulegi'koa —“mizpira bezain latza”, Francis Jammes'en esakeraz— izen aundikoa da. Araba'koa —Laguardia edo El Ciego'koa— eta Napparroa'koa —Peralta ta Tudela'koa, Artajona ta Mendigorria'koa, Artazu ta Lerin'goa, ta abar—, zer esanik ez.

Napar-ardo onentxoena antziñan, Gipuzkoa'n, Peralta'koa jotzen zan. Orain egun eta geiago urte, Juan Bautista Agirre'k bere “Erakusaldietan” onela zion: “Zazpigarren aginteak debekatzen du... gauza mota bat beste mota txarrago batekin nastutzea, nasketarik ezpaliz bezala”. Ta ondoren, adibide au ezartzen zuan: “Nastuko balitz mota obearekin, egin dezagun kontu Estella'ko ardoa Peralta'koarekin, orduan ez du erosleak kalterik, Estella'kotzat ematen badioe”.

Dana dala, gure gaurko lan ontan txakoliñaz —eta txakoliñaz bakarrik— zertxobait mintzatzeko asmoa degu.

Gauza ezaguna da erderazko iztegiek txakoliñari buruz diotena. Ardo ariña, mikatza ta indarrik-gabea dala, diote guziak. Ta iztegiak ezezik baita idazle erdeldun geienak. Onela, Baron Ch. Davillier'ek “Voyage en Espagne”-en (Londres, 1873) dio, ardo gutxi egiten dala Euskalerrria-n, eta izen au ere ez duala ia merezi euskaldunak txakoli deitzen dioten edari motel, mikatz eta garratzak.

Euskaldun bat baño geiago ere mintzatu oi da gutxi-gora-bera one-latsu. Adibidez, Novia de Salcedo'k bere “Diccionario Etimológico del Idioma Bascongado”-n (1867), “Chakolina, chacoli, vino de poca sustancia... vinum imbecillum”, dio.

Alaere, ezin uka euskaldun geienok —edo askok beintzat— gogoko degula txakoliña. Batez ere, gaur dan egunean, Ketari'n esate baterako, zogi ta ardura guziaz landutzen dutena.

Entzun oi degu iñoiz edo berriz Prantzitarren beren aotik, ez dala txakoliñak bezalako Champagne'ko berezko ardo gertu-gabekoa-aren antza duan edaririk.

Ez dira auek guk asmatutako kontu berri batzuk. 1775'garren urtean, Bowles ingelesak “Introducción a la Historia Natural y a la Geografía Física de España”-n zion, txakoliña, bear bezala landu ezke-ro, Champagne'koaren gisako ardo “petillante” bat izango litzakela.

Burdeos'ko ardoaren iduria ere baduala txakoliñ onak, irakurri oi degu nonbait, baña, dana dala, gure iritzi apalez, Champagne'ko landu-gabearena geiago du.

Ta zarra ba-da berriz —zarra ta ona, jakiña, ta ez zarra ta txarra— Rhin'go ardoarena. Emen bertan, Donostia'n, Mundaiz'ko jauregiko ardangelan, orain ogeita amar-bat urteko txakoliñ-bonbilla ale batzuk gordetzen dira, gure iritzi au ontzat emango litzutekenak...

Euskalerrria'ri dagozkioen beste gai askotan bezala, ontan ere G. Humboldték ongi oartu zituan gauzak, "Diario del Viaje Vasco"-n (1801), Bizkaia'ko Mazarredo zeritzan landako txakoliñ zuria oñarritzat arturik, "vin de Grave"-n antzekoa dala txakoliña, dio; ta zarra danean, Rhin'goaren gisakoa; gañera, Mosela'ko ardoa bezain freskagarria dala, ta arduraz landu ezkeru, urte askotan irauten duala. Benetako ederkaturak auetxek...

Euskalerrria'n antziñ-antziñatik ezagutzen dan edaria da au iñolaz ere. Errege Katoliko'ek 1489'garren urtean ontzat emandako Donostia'ko arau zarretan aitatzen da. Iturriza'k eta Larramendi'k, Mogel'ek eta Iztueta'k, Labairu'k eta Trueba'k, Gorosabel'ek, Soraluze'k eta Camino'k ere izendatzen dute.

Ta Garibai berak, izendatu gabe baña, Ketari'ko txakoliñaz "Compendio Historial"-en (1571) itz auk dakarcki: "...siendo Guetaria la villa que en vinos excede, de donde muchas veces se lleva vino a algunas partes de Francia, aunque más por curiosidad que mucha necesidad".

Txakoliñ beltza ez da egiten Gipuzkoa'n. Baña bai Bizkaia'n. Bakio'n eta Valmaseda'n, esate baterako. Gipuzkoa'koa, eskuarki, zuria izan oi da. Ta len Donostia'n, Zumai'a'n, Motriko'n eta agian Ibarra'n ere egiten bazan, gaur Ketari'n eta Zarautz'en bakarrik landutzen da. Napparroa'n ere, gutxi-asko, Iruña-aldean—Ezkaba'n adibidez—gertutzen dute.

Orain larogeita amar-bat urte inguru, Gipuzkoa'n txakoliñak, "oidium" deritzan matsaren gaitzaren erruz, beera-aldi aundia izan zuan.

Txakoliña, iñolaz ere, arrai ta itxasoko beste jaki guziei laguntzeko, edari txit egokia da. Aje bat du: garesti-samarra izatea, gutxi egiten dalako-edo noski. Ta ez da oraingoa akats au. Soraluze'k "Historia de la Provincia de Guipúzcoa"-n (1864) dio, ordurako nappar-ardoa baño garestiago saltzen zala txakoliña Gipuzkoa'n.

Euskalerrri'ko idazleak ezezik, erbesteko bat baño geiagok ere txakoliñ-gai au erabili izan oi dute. Ikusi bestela, adibidez, Mariano Porta'ren "El Arte del Licorista y del Fabricante de vinos de todas clases" (Zaragoza, 1883).

Liburu ontan, beste mirapilli batzuen artean, Portugaleta'ko Bikuña jaunak 1862'ean gertutako txakoliñ zuriaren azterketak, 0,0975 alkohol eman zuala, ezartzen da.

Alkohol-gai oni buruz esan izan oi da, txakoliñak gain-gañekoa izateko amaika "gradu" bear dituala; amar ona izateko, ta baldin bederatzia baño geiago ez baditu, erdipurdikoa izango dala.

Ezin genezake gure lantxo labur au bukatu, José Urkullu'k txako-

liñaz "La Gastronomía"-n egiten dituan aipamen batzuetaz itz bi esan gabe.

José Urkullu au gaztetan gudari-buru ta gero idazle ospetsu-samar bat izan zan. Bere "Lecciones de Moral", urte gutxien buruan, bost-bat bider moldezko letretan argitaratu ziran.

Gorago aitatutako "La Gastronomía"-ren lenengo orrialdean itz auek ezartzen dira: "La Gastronomía o los Placeres de la Mesa, por J. Berchoux. Traducido libremente del francés al verso español, por don José Urquellu, capitán graduado, teniente del regimiento de Infantería de León. Valencia, en la Imprenta de Estevan, 1820".

Joseph Berchoux ori berriz, Frantzia'ko olerkari entzute aundiko bat, 1772'garren urtean jaio ta 1828'ean ildakoa, degu. Urkullu'k gaztelera itzulitako "La Gastronomie ou L'homme des Champs à Table" poema, 1801'ean argitaratu zan lendabizi, ta geroztik ezin konta ala argitaldi izan ditu. Azkenekoa, oker ezpagaude, 1926'ean, Brillat Savarin'en "Physiologie du Goût"-ekin batera.

Urkullu'ren itzulpena ez da itzez-itzez egiña ta gutxiago ere. Berak arlo oni buruz onela dio: "Es cierto que he traducido libremente este poema, pero sin trastornar el fondo principal del argumento, quitando unas cosas y sustituyendo otras más conformes a los usos de nuestra nación: para lo cual me he guiado por aquel consejo de Delille: *una extrema fidelidad en las traducciones es una extrema infidelidad.*"

Baña goazen arira. Bi bider aitatzen du Urkullu'k bere lanean txakoliña. Begira nola.

Berchoux'k bere poemaren irugarren zatian dio:

"Mes amis, si jamais Plutus que j'importune
M'accorde le bienfait d'une grande fortune,
Je la veux consacrer à nourrir l'amitié:
Je prétends qu'avec moi, tous les jours de moitié,
Vous ne me quittiez point; que ma table chérie
Devienne l'heureux gage et le noeud qui nous lie,
Du nectar de Vougeaux vous serez abreuvés,
Et des vins de mon crû constamment préservés (1)."

Onatx Urkullu'ren biurkera:

"Si Pluto, a quien molesto, amigos míos,
Me colma de riquezas algún día,
A la amistad al punto las consagro,

(1) Berchoux Lay-les Saint-Symphorien'go semea zan.

A fin de hacer la vuestra y propia dicha,
 Porque del tiempo la mitad quisiera
 Que vivierais conmigo; mesa limpia
 Y en extremo abundante fuera el lazo
 Para coger tan grata compañía.
 Néctar de Valdepeñas presentara
 Para que refrescarais las encías;
*Preservándoos del vino de Vizcaya,
 Del flojo chacolí que allí se estima."*

Berchoux'ek berriz bere poemaren laugarren zatian dio:

"Que si vous conservez quelques désirs vengeurs
 Contre vos ennemis et vos persécuteurs,
 Ne faites pas comme eux, vous seriez sans excuse.
 Souhaitez seulement que le ciel leur refuse
 Un heureux appétit, qu'un funeste dégoût
 Les acable sans cesse, et les suive par-tout;
*Qu'ils ne soient abreuvés que des vins de Surène (2),
 Ou de ceux que produit leur aride domaine."*

Urkullu'ren biurkera:

"Si albergáis la venganza en vuestros pechos
 Contra vuestros más crueles enemigos
 No hagáis lo que hacen ellos, deseádes
 Que desconozcan siempre el apetito,
 Que un funesto disgusto les persiga,
 Y que apaguen la sed en el estío
*Con vino de Vizcaya, o bien tan sólo
 Con el que nazca en su árido dominio."*

Iñolaz ere, Urkullu'k etzuan gogoko txakoliña. Are geiago: esan genezake, Urkullu'rentzat gure ardoa edari iguingarri bat baizik etzala.

Gu ez gera uste ontakoak, baña gerta liteke, bear bada, gure irakurle batek baño geiagok, euskaldunak izan arren, Urkullu'ren iritzia begi onez ikustea. Beraz, beste eraskiñik gabe, gure lan oni azken-tan-totxo ezartzea izango degu noski egokiena

A. A.

(2) Brillat Savarin'ek bere len aitaturako "Physiologie du Gout"^A-en dio: "Surène, village fort agréable, a deux lieues de Paris. Il est renommé par ses mauvais vins. On dit proverbialement que, pour boire un verre du vin de Surène, il faut être trois, savoir, Le Buveur et deux acolytes pour le soutenir et empêcher que le coeur ne lui manque."

Naas - Maas

EUSKALTZAINDIA-Z.—Euskal Akademiak saristatu ditu, berak eraginikako zeingeyagoka eta konkurso-ra agertu diren novelak eta kontu bildumak. Leen taldean 11 novela, jatorrizko edo itzulikatu-en artean, 3 saritu ditu; 1 jatorrizkoa, "*Joanak joan*" izena deramana, 1.000 pezeta-kin: egillea, Juan de Aldamin. Eta 2 itzulikatuak; 2 garren saria, 750 pezetetakoa, "*Bide izkutua*" deritzaiona, Hugo Wast-en "*El camino de las llamas*" erderazko-aren itzulpena: egillea Fr. S. Berasaluze.

Eta 3 garren saria berriz, 500 pezetetakoa "*Aspaldiko Maigret*", Simenon-en "*La dernière enquête de Maigret*" deritzaion novela-ren itzulpenari; egillea, Eusebio Erkiaga jauna. Aipamen berezia izan du J. Antonio Loidi jaunak, bere jatorrizko "*Amabost egun Urgain-en*" deritzaion novelarengatik.

Bigarren saillan 5 kontu bilduma agertu dira konkurso-ra. Leenbiziko saria irabazi du Fr. Felix Bilbao-k, 1.000 pezetetakoa, "*Zuetzako aitita*" izen-buru duen kontu bilduma-rengatik. Bigarren saria, 500 pezetetakoa, Iuliana Azpeitia anderea-rendako izan da, bere "*Eus-kerera maite maite, zabiltz nigaz beti*", izena duen bilduma osotu due-lakotz. Aipamen berezi bat, Manuel Ziarsolo jaunak presentatu duen bilduma-rendako.

Euskaltzaindiak, bere ixil-aldi luzea autsirik, beyalako bere aldiz-kari EUSKERA birr-argitarazi du. Leenbiziko numeroa poliki dator eta ara zer dakarren bere 47 orrialdeetan; A. Villasante euskaltzainiak argitara ematen du Indize luze eta mamitsu bat; joan zen aldi-an

EUSKERA numeroetan agerturikako erabaki, lan eta irakurgai guztien erreskada eta aurki-bideak, tomoaren, orrialdearen eta egillearen izenekin. Lan neketsua, eta bide batez baitaezpadakoa.

Gero ortographiaz; *-h-* eta *-rr-* izkiak usatzeko artu direan zenbait erabaki, gure azkeneko EGAN hunetan yadanik aipatu zirenak.

Ondotik, zenbait euskaltzain hildakoen nekrologiak dakarzki, Azkue aaztu ezifiarekin asirik, eta Zamarripa, Campion, Urkijo, Gerra, Lacombe, A. Olabide, Eguskitza, Intzagarai, eta Saintpierre apezpiku jaunekin jarraikiz (zer lerroalde hitsa eta oroitgorria!), bakotxa bere artikulo bereziakin, euskaraz.

Azkenik aipatzen ditu orai Urkijo Mintegia-ren babesean Gipuzkoa-Aldundegiko Liburutegian egiten direan solas eta itzaldiak, illabete bakoitzaren azken ostegunean. Leenbizian, Euskal-tzaindiaren itza-lean asi ziran itzaldi horiek, A. Irigarai euskaltzain jaunak eratuak eta moldatuak orai bi urte; eta beti zaletasun berakin entzuten direnak, eta jarraikitzen direnak.

EUSKERA aldizkari-aren urrengo numeroetan argitara gogo dira Azkue-ren Iztegi aundian egilleak berak oharpendu zituen ainbeste eraskin eta emendio. Orrialde asko beharko dira bildutako itz eta esakerak kokatzeko, eta aldizkaria duketenek osotuko aal dute Iztegiaren zati luze bat. EUSKERA artu nai dutenek zuzendu bere eskeak (Diputazionera) Euskaltzaindiaren buruzagi jaunari.

URKIJIO Mintegian, Diputazionean, segitzen dute euskera ikasteko abiatu klaseak. Bi maillatakoak dira; leendabiziko mailla, euskara tutik eztakiten-endako, eta 2-garrenekoa, zertxobait dakitenentzat berriz. Azken hunetan euskal-Literatur irakur-aldiak ere egiten diralarik. M. Bidegain anderereñoa da klase hoken Irakaslea, eta bide erreza eta praktikoa segitzen du; euskerazko itzak eta esan laburrak, batetik bestera, eta bein eta berriz esan arazten die leen maillako ikasleei; gramatikaz ezinbestean bakarrik baliatuz.

Au da ta bide bakarra euskaraz mintzazen eta irakurtzen irakasteko. Gauza bat da beribil bat ondo erabiltzea, eta bestea haren erraiak yakitea tiletez tilet, eta zati guztiak abarrikatuak daudezinean, ondo, zeatz eta zuzenki elkarganatzen jakitea. Bestela bearko litake, euskeraren zurajea eta biurguneak ikasi naiko luketenentzat. Baiñan hau beste jakituria da.

Urkijo MINTEGIAK eginarazten dituen Solas eta itzaldiek segitzen dute illabete guztietako azken ostegunetan, Diputazioneko Liburutegiaretoan, jendea bilduz asierako jarraikitasun berarekin, eta laudorioak egitentuztela entzuleek, itzlariek derabiltzaten gaiaz, eta berdin euskera garbi eta ulert-errexera rengatik.

Itzaldi guztiak argitara gogo dira EGAN hunetan, egungoan La-

bayen jauna-ren-arekin egiten dugun bezala; batzu yadanik argitaratuak dagozi. Solasaldi hok asiak ziren orai bi urte beteak, A. Villasante-ren itzaldi-akin, Ioanes d'Etxeberri idazlariaz, 1953 gn. urteko martxoaren 26-an. Beraz badute iraupen. Gero illabetez illa bete, udamine-ko illabeteak kenduz, egin dute: L. Mitxelena j.-k. Oihenart-ez. A. Irigaray j. Axularr-ez. J. M. Lojendio j. Mogel-ez. A. Arrue j. Agirre Asteasu-koaz. Dionisio Azkue j. Bilintx-ez. A. Onaindia mintzatu zitzaigun Fr. B. Santateresa-z. A. Zugasti j. Iturriaga-z (bi aldiz). J. Jose Beloki j. Detxepare-z. J. Gorostiaga j. "Aintzineko gudu kantak". A. S. Mitxelena, Arte-az. J. Etxaide j. "Euskeraren berri laburrak". A. Arrue berriz, Gerriko idazlariaz. J. Elozegi j. "Euskal idazlariak irakurtzen". M. Lekuona j. Gramatika-z (bi aldiz). A. Villasante, Añibarro-z, eta j. Garmendia j. "Euskalidazlariak" gaiari buruz; denetara egiten dute 18 itzaldi.

Seminario URKIJJO orrek berak eraldu ta, izan dira toki berean ilbeltzan, iru itzaldi aipagarri; A. Omaetxebarria mintzatu zen *La perspectiva histórica en el estudio de la lengua vasca* gaia artuz. Argi ta garbi mintzatu zitzaigun izkuntzek bere bizitza luzean dituzten aldakuntzetaz eta aldakuntza oken bide eta legeetaz, erdara eta euskaratikako exempluak azalduz. Ikasikizun beharrez koak Linguistika-ko ok, gure mintzairaren erroak ikertu najan dabillanentzat ere.

Bere jakituri edatua erakutsi zigun Omaetxebarriak, azalpen gozotan bilakatuz jakintza idor horiek; eta apalki eskatzen aldika, entzuleei beren iritzeak, egiazko jakintsun bateri dohakon gisan, ampuruskeri mikorik ere gabe.

SEMINARIO beraren izena present egongo da Salamanca-n, Apirilaren 11-12-13 eta 14 garretetan bilduko dan *Congreso internacional de Onomástica* horretan. Ospe andiko batzarre horretan agertzen dute beren lanak, Urkijo-Mintegi-ko lankide batek baiño geyagok. Iru lan bederik (Toki eta persona-euskal-izenetaz) irakurriko dira. Mundu guztiko jakintsunak bilduko dira hor eta euskera-rekilako langileek ez dute uts egingo.

DESTINO aldizkari-koentzat. Barcelona-ko aldizkari ernearen 914 numeroan, auxe irakurri genuen "Le interesa saber" deritzaion xokoan.

"Eztakit zeintzuk direan gazteenak", sencilla (?) frase vasca que traducida al español dice así: "En tu casa he visto más ciruelas que avellanas".

Jakin gabetasuna ote? Edo aldizkaria-ren izkiribatzailetaz yostazteko erantzun ote zuen norbait horrek?

Euskaldunetan irakurle jarraikiak dituen ezkerpeztik DESTINO aldizkariak, nai diegu adiarazi horren buruzagiei *sencilla frase vasca* horrek (zuzen idatzia bestalde) esan nai duela: NO SE CUALES SON LAS MAS JOVENES (6 los).

Erromatarren aldiko it-obi bat Funes-en. Nekazari batek bere landan aitzur lanean ari zelarik jo du arri lauso andi bat; eta jakitunek ikuskatu ondoren diote Erroma denborako hilarri bat dela. Barrenean bi kaskezur eta beste ezur purruxka erraustu batzu kausitu dute; bai ta eraztun erdoildu bat eta usai-on untzixka fiñ bat ere.

Instituto Principe de Viana-koek arta artu dute hortan eta lanean asiko ei dira, berek dakiten bezala, lurpean ditezken erreštu zaar balioitsu-en ikertzen. Eta zaarrieri-etaz ari garela, noiz asiko dira Principe de Viana-koak erri horren inguruan eta Nafarroa-ko bestetan, lurpean edo lur azalean ikertzen edo biltzen Erroma baiño aunitz aintzinago-tik dagon pitxi ehortzi baten errestoak? Nafar askoren aotan oraiño bizirik dirauen mintzaira-ren ondarrak?

HANS CHRISTIAN ANDERSEN. Mundu guztian famatu kontulari hunen 150 garreneko sortze urte-burua ospatzen da aurten. *Odensea*-n jaio zen, *Dinamarca*-n, oskigille edo zapatagin errumes baten semea; bizitu zen leenik gabezia eta nekeetan; baiñan aurrentzat idatziriko kontu eta ipuin xoragarrieri esker edatu zen berehala haren omena; bai eta errege familiakoen adiskidantza erdietsi idazlari aundiak. Bihotz andiko eta adimen argiko gizon eredu hunek, begi amultsuak erakusten ditu pintoreek egion zioten idurian, bai eta ezpain emeak eta fiñak; aitorenseme egiazko baten aorpegia, zifnez.

LIBURUAK. Franzia-ko estadistika batean irakurtzen dugu, joan den urtean 12.179 liburu argitaratu direla erresuma horretan; horietarik 300 urbil, frantsesa ez diren beste izkuntzetan; inglesa (geyenak), alemana, malgache, ukrania, euskera, etc.

Eta 1.159 liburu berriz, beste izkuntzetatik frantsesera itzulikatua: hoketan ere geyenak inglesetik, 820; espainoetik itzulikatua 32 dira. Amabi milla guzti horietatik, Literatur gaiaz 3.364 izan dira.

Franzia-ren aldean Inglaterran argitaratu dira epe berean 19.188 liburu.

Apat-Etxebarne

Z I N E M A

PERFECT CRIME ("CRIMEN PERFECTO"). Hitchcock zaarra, *suspense*-billa beti bezala (zalantza esan bearko dugu euskeraz), antzerki ezagun ontaz jabetu da gure txolarteak alaitzeko.

Ezkontzak, estatu ederra izan arren, baditu bere atsekabe eta alde txarrak. Zinemak eta liburuek ao batez erakusten digutenez, maiz arkitzen da senarra bere emaztea "akabatzeko" bear gorrian. Noizik bein, aldatzeko edo, emazteari gertatzen zaio ezbear ori.

Ezta ori ordea nolanaig egiteko eginkizuna, gizonaren arrazoizko izaerari dagokionez baizik. Leenbiziko ekitaldia: "Zein dut ortarako biderik erosoena eta, ola esan baditeke, dotoreena?", galdetzen dio here buruari aurrerantzean bizilagunig gabe, "txoria airean bezala", bizi nai duen senar gizarajoak. Eskolan bezela da: *maxima et minima*. Orren gisatsukoa zan Fermat'en galdera ura: "Nondik du argiak A-tik B-ra biderik lasterrena?" Eztu senarrak luzaroko lanik problema ori erabakitzen: badirudi urtean bein gutxienez orrelako egitekoren bat egin bear izan duela leenago ere.

Bigarren ekitaldia: usteak erdia ustel. Atzekoz aurrera atera zaizkio asmakizun burutsu guztiak. Txunditurik geldituko giñake gu, ta txunditurik gelditzen da Ray Milland ere; ez ordea luzaroan. Aurki ipiñiko dizkizu berriz aurrekoak atzera eta atzekoak aurrera, muturak egin bear zuena kirtenak bederen egin dezan.

Irugarren ekitaldia: "Gaizkintzak eztu iñor aberasten", "Berak irekitako zuloan erori zan" eta abar. Senarrak, gizon saiatua izan arren, saiatu rik bada, ezin xeetasun guztiak gogoan eduki. Giltzatxo batekikoa aaztu zaio oraingoan. Eztu gaizki artu sorbalda-gaiñean jarri dioten eskua, ezta geiegi arritu ere. Gu ere ez. Gisa ortako asmakizunak naitaez pot egin bear dutela erakutsiko ezpaligukete bein

ta berriro, elirake laster lur-gaiñean geldituko ezkongaiak eta alar-gunak baizik.

Odol-ixurtzerik gabeko eriotze orrk ezkaitu naigabetu. Joko-legeak bagenekizkien alde aurretik. Adimena zorrozteko sortua zan jostaketa orain, ez biotza ukitzeko. Teatroan bageunde, or ikusiko genituzke orain agurka, oiala altxatzean, illa, bizkarrean sartuak zeuzkan goraizeak eskuan dituela, senar atsegiña, emazte ona eta emaztearen lagun leiala. Eta xoko-xokoan, zirritu batetik begira, Hitchcock maltzuraren aurpegi biribilla, bere filmetan gertatu oi den bezala. *Plaudite cives!*

Zaarrago eta ikasiago, Solon zaarrak esan oi zuen bezala. Eta emazteari besotik elduta bagoaz etxea-aldera.

THE ROBE ("LA TUNICA SAGRADA"). Film onen oiñarritzat ar-tu duten irakurgaia oso ezaguna omen da Ipar-Amerika'n: ezkenduen alere orren aditzerik. Ezta arritzeko. Badakizute badirela nonnai, an eta emen, askok irakurtzen dituen liburuak eta iñor gutxi, jende ikasien aurrean beintzat, aipatzen dituenak. Auetakoa bide dugu "The Robe" ere.

Zorionekoak aurrak eta urtetan aurreratuak izan arren aurtzaro-ko garbitasunean irauten dutenak! Guk, urteak igaro-aia barrenean azi zaigun gizontxo kontentagaitzaren marmarra gero eta nabariago somatzen dugu. Atsegiñez ikusi nai genduke film au, aurtxo biurturik, baiña, geren buruaz aazturik orain bi milla urteko gizonen artean naasteko zorian gaudenean, gizontxoaren garraxi latza entzuten dugu: "Ez, ez!" Ez omen dute orrako txotxongillo oriek, oi baiño larriagoak izan arren, Erromar itxurarik —nere gizontxo Filologia klasikoa ikasia duzute, izenez beintzat— ez giza-itxurarik ere. Eta aldamenekoaren oiua belarrjan ditugula, nola amets egin, "Cinemascope" —"mundua sortu zan ezker ikusi den gauzarik miragarriena"— berriarekin ere?

RASHOMON. Japondarrek ere badute zinema eta, arritzekoa, Ortega y Gasset'en (1) perspektivismuaren argibide polit batekin aurkeztu zaizkigu. Ar itzazute iru lagun —senarra, emaztea eta lapurra— eta bil itzazute elkarrekin basa-bazter batean. Senarra il da, ori ergi ta garbi dago; emazteari ere zer edo zer egin diote, eta bego ontan. Baiña, au jakin nai genduke poliziak bezala, nola gertatu dira gauzak?

Entzun ditzagun. Lapurrak du aldi leenbizi, emazteak gero. Zarenaren arimak ere badu zer esana. Azkenean inguru aietan gertatu zan

(1) Bere adiskide eta ikasleen antzera Don José deitzera ezker auzaritzen.

egurkari batek ikusi uste zuena jakingo dugu. Baiña, onek berak ere, egi-egia esan ote digu?

Basoan gertatuaren berri naiz ez ongi jakin, zenbait gauza ikasi ditugu orratik, eta ez nolanaikoak. Asia'ko bazterrik bazterrenean eta Europa'ko txoko ontan gizonak era batetsukoak dirala: gizon, alegia. An ere, emen bezalaxe, beste griñez kanpora, nork bere burua goraiño jaso eta besterena lurreraíño jatxi bearra duela eragille. Eta, au da beltzena eta gogorrrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldinbadugu —gaurko neska-mutillek irakurtzen dituzten noveletan edo antziñako poema epikoetan bezala edertua eta goratua edo oraingo eta leengo zenbait idazlek oi duten bezain beztua eta itxurartartua—, alderik politena eztela beti, ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. Japon'en eta emen gizona —eta emakumea— izukaitez baiño bildurriago, prestu baiño berekoiago, biotz-zabal baiño zitalago dela, alegia.

Beste irakaspen atsegiñago bat ere badakarkigute. Film on bai egiteko ezta gauza andiren bearrik: bospasei lagun, basa-bazterra, etxe edo eliza erdi ondatu bat. Kolorre bizirik ere ez eguzkiaren basoko arrigarrizko ibillerak —“osto-pillo ta izar izunak abe”— eta euraren etengabeko emana begietartzeko. Beste zerbait ere bear da api-ka, baiña “zer” ori ezta dendetan salgai daudenetakoa.

A! Aaztu baiño leen. Aien izkuntza eta gurea berdintsuak omen dira. Bai, bai...

ESCAPE FROM FORT BRAVO ("FORT BRAVO"). Atean nago, “Magdalena” ikustera etorria. Naiago orratik sartu baiño aldegin. Negar-usajera jendea erruz dator, eulja goxora bezala. Biotza erdi-bituko zaigula agindu digute eta uste orrek alaitzen die nonbait aurpegia. Nik, berriz, osorik gorde nai nuke, zimurrik ere gabe aal balitz, gaurkoz beintzat. Biar, etzi, datorren astean utziko dut, derrigorrekoa baldinbada, ongi marruska dezaten. Egun jakiñak jarri bear lituzkete ortarako.

Arizona edo Mexico Berri'ko lurralde zabal-legorrak ditut begien aurrean. Biotza, batere larritu gabe, lasai ari da bere lanean. Ezagunen artean gaude, betiko Iparrar eta Egoarren artean, eta uts andirik gabe esango genduke alde zurretik zer gertatuko den. Indioak ere emen ditugu, apatxeak (Mescalero edo Chiricahua), bere buruzagi ta guzti (Cochise, Victorio edo Jerónimo). Eta pizten zaigu gogoan, kandel-argi ikara baten gisa, aspaldiko nai izkutua: ez ote ditugu bein edo bein indioak garaitzaille ikusiko?

Kanpora goaz. Argi bildurtia aspaldi itzali zitzaigun: astiñaldi ederra eramán dute indioek oraingoan ere. Biotzak ordea, gure biotz

minberak, eztu pausorik bizkortu eta gutxitan ikusi ditugun bezalako lurralde egarrien erraiñu ederrak irauten du begietan.

CANCHA VASCA. Trafalgar'en nork bere eginbearra egingo zuela-koan zegoen Ingalaterra. EGAN-en irakurleek "Cancha Vasca" ikusiko dudala eta "Cancha Vasca"-z mintzatuko naizela uste omen du-te. Emen naukazute, beraz, gogo onean edo txarrean etorria, zernai-tarako gertu. Inguruan zenbait lagun ikusten ditut, iñork bultzatu gabe etorriak. Sokarik beintzat ez-tut nik ikusi.

Esango dizuet zer den film ori, ikusi gabe lasai geldi zaitezten. Badira nonbait —Euskal-errian edo— euskaldun izeneko gizon-ema-kume batzuek. Emen, egia esan, erri koxkor batekoak bakarrik ikus-ten ditugu, Elantxobe'koak, baiña besteek ez-tute alde andirik izango. Euskaldunik euskaldunenak direlakoan aukeratuko aal zituzten. Bi motatakoak dituzu: a) arrantzaleak, b) pelotariak (1). Arrantzale gi-zarajoeak mahonezko atorra daramate soñean eta etxe-gaiñean, teilla or-de, ez-tute hipoteka eta zentsua besterik. Pelotariak berriz, Miami'n erositako atorra loratu tu guzti, emezotzi urtetik emezotzi urtera agertzen dira errian, eta agitz arriturik gelditzen iñoizko andregai-a besterekin ez-kondurik arkitzen dutenean. Beste eginkizunik ez iza-ki ta, or aritzen dira atso-agureentzako erruki-etxeak eta umeentzako eskolak egiten. Eztira asko: eunetatik bat geienaz ere. Bestela Elan-txobe osoa erruki-etxe eta aur-eskola litzake.

Esan bear dizuet orratik orrako arrantzale orietaz susmo txarra egin-da nagoela. Gaizki bizi direla, bai, baiña... Eguraldi ona denean, itsas-ertze-ko arkaitz-mutur batera joango zaizkizu taldeka, galtzak zuri eta gerrikoa gorri. An egoten dira zai, nor agertuko, txistulari-direlako batzu, arrantzaleak noski auek ere. Asiko zaizkizu txistu-lariak soñua jotzen, eta besteak dantzan, "espatadantxan", eguerdi-aldean, izerditan blai, errira itzuli arte. Eseriko dira orduan kai-on-doan dauden mai luzeetan, nork bere botilla ardoa aurrean, eta zin-tzurra urratu bearrean ekingo diote kantuari: "Antero'n txamarrotia —txikarren bigotia— Arrese'k ei dauko..." Esandakoak, egunoro-ko zeregiñak dira. Lekeitio'n edo beste nonbait jai andiak direnean, an ikusten dira ikustekoak!

Eramankizunak ere badituztela esaten digute, eta guk siñetsi egin bear. Itsaso delako norbaitekin dabil-tza beti zirika, atun-billa, eta Itsaso ori bildurgarria omen da eta maltzurra. Leon-kastilloan beza-la da: arrantzaleak oraingoan atuna jan, eta urrengoan atunak arran-tzalea. Baiña kantari eta dantzari —eta zaatoari eragiten— ari di-reiño ez-tira, dirudienez, geiegi oroitzen ez Itsasoaz ez etxe-gaiñeko

(1) Andima —Elantxobearra, esaten digutenez— ez-takigu zeintakoa den.

hipotekaz. Garbi aitortu bearrean gaude. Euskaldun auek jende jatorrak dira, zintzoak, leialak, esanekoak. Ezin dute biotza barrenen gorde: ain dute andia. Pozik badaude, riaul, irrintzi ta saltoka asten dira; otoitz egin bear badute, emakumeak beintzat, erdi-erdian jarriko zaizkizu, arako Fariseuaren antzera, ezpain-ertzak makur eta begia eze. Eta mutillak gogoko duen neska —edo neskak mutilla— ikusten duenean, ango apak eta laztanak, elkarri oratuta, naiz ta igande-eguerdian erriko plaza nagusian arkitu! Orrexegatik iruditzen zait, Jainkoak beso-zankoak arindu baldinbadizkie, eztiela buruan ere pixu astunik jarri. Dantzaritako sortu zituen nonbait.

Izkuntza ere bere gisakoa dute euskaldun auek. Ara zenbait ale, itzez-itz jasoak: “Afición que te tienes o así”, “¿Por qué te es, padre?”, “Atrevido ya te eres o así”. Au da agian arako zenbait auzokok “vasco-románico” deitzen duten izkera ura.

Film bat egiteko, besterik ere bear da: korapilloa, “istillua”. Ortara nator. España'n —zineman beintzat— “betiko trianguluak” lau alde izaten ditu: senarra, emaztea, senarra eztena eta apaiza. Olaxe emen ere. Senarra, Iñaki (ola du izena, ez tute nik bataiatu), pelotari izan nai zuena eta arrantzan gelditua. Emaztea, Begoña, emezortzi urteak igaro baiño leen aspertua eta Iñaki'rekin, besterik ezean, ezkondua. Senarraren antagonista, Josetxu, atorra dotoredun pelota-txapelduna, Elantxobe'n utzi zuen andregaiaz berandu xamar oroitu dena. Apaiza geroxeago aipatuko.

Iñaki'k eta Begoña'k seme bat dute: “el” Txantxo (ze izen arrano ote da ori?). Onek pelotari izan bear, eta amak laguntzen djo; aitak berriz ez tute orrelakorik aditu nai. Josetxu'ri, jakiña, mutikoari laguntzea ematen dio gogoak. Eta asten dituzu mutur-joka Iñaki, Josetxu eta apaiza. Ezta au (“curita, no: curaso”, berak “vasco-románico”-z dion bezala, makalena. Garbi ageri da elukeala beste biak ebaintzeko lan astunik izango, “janzki beltz auei zor diedan begirameña” galduko balu.

Jaunak ukitu du azkenean Iñaki'ren biotz gogorra. Amor eman du: semea pelotari izan dedilla nai badu, lagun dezaiola Josetxu'k. Gauzak eztaude alare bear bezala, ongi konturatzen gera: Josetxu eta Begoña elkarganatu bear genituzke. Nola ordea? Ezta erraz asmatzen. Apaizak ere, edozertarako balio duen *Deus ex machina* orrek, eztezake deus askorik: ez ezkontza autsi eta ez, daraman jantzia daramala, Iñaki galtz-ipurditik artu eta arkaitz batetik beera bota. Itsasoa aaztu zaigu, Itsaso bildurgarria. Ekaitza sortuko dio urrenge itsasoratzean. Ura ekaitz arrigarria! Iñaki'k nonbait ontzia sorgindurik dauka, eta Itsasoa, nagj xamar bada ere, gora eta beera ibilli arren, ez tute ontziak zirkiñik egiten, ondoari iltzaturik balego bezala.

Etsi du orratik senarrak, gaillen ageri zanean gaiñera, Aspertu

dalako edo gure antzera, *de trop* dagoela azkenean oartu delako edo. Itxi ditu begiak. Badijoazke lasai Josetxu eta Txantxo Miami'ra. An nonbait, urruti beintzat, edukiko aal ditu Jainko urrikaltsuak!

CANGACEIRO. Lima Barreto'ri eskerrak, zenbait gauza berri ikusi ta entzun ditugu: lurralde berriak —Brasil'goak—, aurpegi berriak —beltz, txuri-beltx ta beltxeran—, kanta berriak —orain arte andik etorri zaizkigunak baiño jatorragoak— eta gizaki berriak, oi baiño gizonagoak. Badu, agi danean, Brasil'ek munduari zer erakutsi bere lurreko aberastasun ugariez kanpora ere.

Izango dira noski berirtasun au gogoko izango eztutenak. Ezpaitira gutxi Ipar-aldetik datorkigun betiko leloak txepeldurik dauzkanak eta olakoez naiago zituzketean oiturazko soñuak eta, batez ere, oiturazko aurpegiak: Olako'renak eta Alako'renak. Eztugu iñor aipatu nai, bat edo besteren izena ezagutzen dugularik ere, gure laguntzarik gabe bai baitute naiko propaganda. Badakizu beraz zer egin, irakurle, orietakoa bazaitugu: "Cangaceiro" izena ikusten duzun lekutik aalik lasterren aldegin.

L. M.

TREN TXIKI BATEN ESTUTASUNAK. Ingelesa film au. Ingeles jatorra. Umorez, batez ere. Ezin uka.

Zine-lan polita, benetan, bai Charles Crichton zuzendariak eta bai George Relph eta Stanley Holloway antzezlariek bertan egiteñ dutena.

Gaia? Txit bakuna, ta naspilla ta korapillo gabea. Titfield erri txikiko tren koxkor-zartxoaren nagusiek igarotzen dituzten estutasunak, burnibideari eutsi ta iraunerazteko.

Badirudi, esate baterako, gure "Topoa", "Plazaola" ta "Bidasoa"-ko burnibideak ezagutzen dituala egilleak. "Topoa", batez ere.

Titfield'ko trentxoak ere bai bait-du autobus-elkarte bat aurka.

Ta Titfield'ko trentxoa, burnibidetik irten eta kalez-kale ta zelaliez-zelal une batzuetan egurasten ba-da, "Topoa" ere iñoz ikusi izan bait-degu "Plaza Gipuzkoa"-ren barrunean, zingirako ate lepo-oker zurien billa-edo...

Gogoratzen gera bein batez "Bidasoa"-n ginjoazela ere, arrantzale batek ibaian izoki eder bat arrapatu zuala-ta, tren gelditu ta bidazti guziok —eta gurekin batean "makinista" ere bai— ikusmira jatsi gifiala.

Jakiña, aundientzat baño umeentzat egokigoa da "Tren txiki baten estutasunak". Zertxobait bederik ume biurtu bear bait-da nai ta nai-ez onelako ikusgarriak gogoko izateko. Baña, ez al-zaigu atsegin,

ordea, aundi askori ere, aldiz-aldiz, aurzaroa gogoratzea? Bai noski, ta Jaungoikoa'ri esker, gañera.

Baña goazen arira. Esan degu, bai zuzendariak eta bai antzezla-riek film ontan egiten duten zine-lana, polita dala. Polita, e? Ez arri-garria, noski. Guzía apala ta lau-laua bait-da. Obeto esateko, guzía ez. Margoz, kolorez, onenak bezain onena da-ta, iñolaz ere. Antziñako "cromo-ingles" goien-goienekoen mallakoa.

"Topoa", "Plazaola" ta "Bidasoa" aitatu ditugun ezkerro, itz bi, bukatzeko, burnibide oriei buruz.

"Plazaola" il zan noski bein-betiko. Baña "Topoa" ta "Bidasoa", naiz gaxo-samar eta errenka, bizi dira oraindik. Ta "Topoa" gañera berriro Donostia'n sartuko ote dan diote. Ez omen dago beintzat asmoa galduta.

Dana dala, orrenbeste urte, neke ta lanbide igarotako tren maite-kor oriek, ez aldute oroimen txiki bat bederik merezi?

Beti jo izan ditugu pelikulakoak baijra bezala. Beraz, Titfield'ko trentxoaz egin duten gisara, egoki izango litzakela uste degu, be-ren bizitza ta gora-berak gaitzat arturik, beste pelikula bat eratzea.

Ta pelikularik ezin ba-da, tira, "bertso berri" batzuek beñepein..., merezi dituztela derizkiogu.

A.



buruz: biziro egoki azaldu duela Aita Emiliano'k berea. Ia 300 orrialdeko liburu onek gai aberatsa du, ongi tajutua eta zeatz eta garbi aditzera emana.

Izkera berriz —ortaz ausarkiago mintza gindezke— ederra eta ugaria. Eztabil egillea Txirrita-patroiarekin: euskera landua du, jaso. Baiña ez geiegi, edozein irakurlentzat adigaitz izateko adina ez, alegia. Ezur-muinetan sartua dauka gure izkuntzaren izaera eta joskera eta lasai dabil orri eskerrak erdi-mailla atsegin batean: goranaiean, baiña es goregi; erraz-zurrean, baiña ez narrasegi.

Itxura ederra du liburuak: "Itxaropena"-k egin duela esatea naikoa da noski. Edergarriak berriz Santos Etxeberria'renak dira. Nola bereziko ote dituzte gorokoek Santos'en izena eta gaurko euskal-literatura? Bidelagun iaioa aukeratu du onek.

Edozein eskaldunentzat atsegin izango den liburus, itz batean, eta Ama Birjiñarengana jaiera berezia dutenentzat aukera-aukerakoa.

BERTSOLARIAK

Juan Baxurko. JESUS. JESUKRISTOREN BIZITZA BERSOTAN JARRIA. (Editorial Franciscana Aránzazu). *Joxe Zapirain. NERE BIZITZAKO BERTSO. BATZUEK.* (Imp. Macazaga. Renteria).

Euskera eta bertsolariak elkarri lotuak daude etxeko eta arrotzen gogoan. Erri-poetak badira beste lekutan ere, baiña iñon gutxitan gure artean bezain ugari eta jator. Bertsoak omen dira, zenbaitek dienez, gizonak berezko duen mintzaera, nonnai prosa baiño leenago eder-lan gaillenetan ageri dena. Euskaldunok gorde dugu inguruko erriek aspaldi galdu zuten aurtzaroko ixuri xamur ori. Eta urteak joan arren beti aur izate onek atzerapide eta alde txarrak baldinbaditu ere erri batentzat, nork arotz eta nekazarien mintzo apal, beti zaar eta beti berri oni belarriak eta biotza itxi?

Eztira bertsolariak, ongi dakigunez, itzetik ortzera aapaldi zorrotzak asmatzen dituztenak bakarrik. Or daude, oietaz kanpo, luzaroko lan ixillean bertsoak ontzen dituztenak ere. Oraingo auek bezala.

Joxe Zapirain barrenkoia dugu, Juan Krutz zana bezala. Baxurko'k berriz amaika olerkari xee eta larrik artu duten kanta-gaia bereganatu du: Gure Jaunaren bizitza eta eriotza. Egun edo biar Euskal-erria-

ren sentiera izkutua aztertu nai duenak eztu gorengo poetengana bakarrik jo bearke, beste aldeetan bezala. Emen aipatzen ditugun bertsolarien lanak ere astiro ausnartu bearrean izango da.

Baxurko'ren liburutxoari itzaurre ederra eman dio M. Lekuona jaunak. Gai auetan guzior maisu eta gidari dugun ezkerro, berea dela esatea naikoa eta geiegi esatea da.

L. M.



Lombardi, S. I. (Ricardo). *LA SALVACION DEL QUE NO TIENE*. FE. Edit. Herder. Barcelona.

Xabier-ko Frantzisko Santuak, Japon-aldeko berriak emanaz utzi zizkigun eskutitz ederretan, ango kristauen kezka bat azaltzen digu. Kristau berriok min ta atsekabe artzen omen zuten, gure fedea ezagutu aurretik ildako beren asabak betiko inpernuan zeudela gogoratu. Galdetzen zioten Xabier-i otoitzez edo limosnaz ba ote dagoan aei laguntzeko biderik. Santuak, berriz, ezetz erantzuten; eztagola ezer egiterik, eta lagatzeko. Mingarri da, baiña erremediorik eztagonean, zertako nekatu? (Ikus *Cartas y Escritos de San Francisco Javier*, ed. B. A. C., p. 418).

Ala ere, bai orduan eta bai orain, millaka ta milloika dira Eliza Katolikoaren fedea ezagutzen eta onartzen eztutenak. Eta oiek danak nai-ta-naiez inpernurako ote dira? Maiz egotzi izan zaigu aurpegira katolikoen gure biotz gogor ta ertsikeria, jentil gaixo oro galdutzat ditugulata. Ain zuzen, Otto Karrer jaunak idatzi zun guzaz zabaldurik dagoan uste onek dakartzkian ondore gaiztoez (Ikus *Le sentiment religieux dans l'humanité et le christianisme*; alemaniar izkuntzatik itzulia). Guretzat, Elizatik kanpo diran oro, "massa damnata" bezala omen dira, inpernurakoak, galdubearrak. Egia ote?

Ezageradun gizakumeak, fedea nai-ta-naiezko du, zeruratuko bada. Ori Elizaren erakutsia da. Idazki deunetan idatzirik baitago: "Siñes-terik gabe ezina da Jainkoaren gogarako izatea" (Hebr. 11, 6). Beraz, fedea ezta gutxigoraberako gauza, bearbearreko ta are derriorreko baldintza baizik. Orduan, Eliza Katolikoak duen fedea, oso-osorik, bere siñiskai guztiekin siñistu gabe, ezin diteke inor ta inola ere

salbatu? Amaikatzeko dira, dudik gabe, illunpetan, erligio izunetan, gure fedearen berri ez tutea, eta ori errurik gabe. Oek danak galdumendian jartzea ez ote litzake zuzen-kontra?

Baiaña aipaturiko testu ark emango digu argi. Jarraian ara zer dakarren: "*Jainkoari urbiltzen zafonak, Jainkoa ba-dala, ta billa dabilkionei ordaintzalle zafela sinetsi bear du-ta*" (Id. ibid.). Beraz, naita-naiezko premia bi siniskai oek, bederen, bear ditu gizonak fedez artu: Jainkoa ba-dala, eta bere maitaleak izadigaiñetiko sariaz saristatzen dituala. Bi egi oek xoil-xoilik lirake bearreko, geiago ezin danean. Ezta gauza aundia.

Baiaña, ots, fedea eta jakitea ez tira bat; fedea ezta gure argi xoillaren indarrak atxiki degun albiste edo ezaguera. Fedea, Jainkoak berak agertu digun irakaspenari (Revelazioneari) baiezeko ematea da. Fedeko egintza posible izan dedin, bi ziurtasun bear ditugu, adimenaz iritziak: lendabizi, Jainko bat ba-dagola. Ziurtasun onetara irixteko, errege-bide zabal-erosoa du norma izadian bertan, onek Kreatzaille ta Ordenatzaille bat galdegiten baitu. Bigarren ziurtasuna atxikitzea, zaillago dala aitortu bear; alegia: Kreazoneaz gaiñera, Jainkoak zer bait agertu edo revelatu digula jakitea; besterik ezpada, bere maitaleei emango dien sari izadigaiñetiko ori. Revelazionearen ziurtasuna da, beraz, bigarren baldintza. Bi egi oek ziurtzat dauzkanak, badu fedeko egintza egiteko beste. Geroztik, Jainkoak esandako edo ageritakoari burua makur dezaioke, eta ala fede salbagarria egin.

Fede zerugarri ori irixteko, ordea, itxirik ote daude ate guztiak kristau katoliku ezgeranontzat? Ez. Hereje, Zismatiku, Judu ta Mahomatarrek, egizko Revelazioneaz duten artu-emanagatik baduteke egokiera, bearreko dan fede-apur orren berri jakiteko. Beste erligio faltsoetakoek, naiz ta erligio faltsoetan bizi, apika, beren erligio oetan aurki dezakete fede salbagarri ortarako bide. Ta azkenik, Jainko altsu esku aundikoak ba-ditu anima-barrenera bidali ditzakean argi eragikorrak.

Ona emen, bada, labor, kristau irakaspena: fedeko egintza gabe ezta zeruraterik. Fede ori, ordea, danontzat posible da, Elizatik kanpo daudenentzat ere bai. Idazti Santuek egi pozkor ta biotz-altxagarri au jakinarazten digute: *Jainkoak gizakume guziak salbatzen ta egia-zen ezaguera irixtea nai duela* (1 Tim. 2, 4). Eta nai ori zintzoa izanik, dan-danoi eskeintzen dizkie salbaziorako bideak. Teologian finkaturik ta tink ezarririk aurkitzen da beste esan ura ere: *Facienti quod est in se Deus non denegat gratiam*: al duna egiten dunari, Jainkoak ezta bere grazia ukatuko. Eta graziari erantzunaz, salbatua izateraiño el dajeteke.

Problema zail ta ukigarri au oldartzen digu liburu onek, alde orotatik ta edatsuki astinduaz. Gaja aurretik arakatu dutenen iritziak ere

aztertzen eta epaitzen ditu: Capéran, Harent, Billot, Glorieux, Pinaud de la Boullaye... Azalpen argia badu ere, batzuetan, alabaiña, irakurtzeko legor ta nekagarri egiten da (gaia ere alakoxea du-ta). Teologi-jakintzaren prozeduraz zerbait oitua eztagonak, izango du, bearbada, neke pixka bat liburuaren muin osoa edoskitzen. Ortodoxi-aldetik, esan bearrik eztago, irakaspen guztiz ziur ta ondo finkatua du. Liburua ezta teologu utsentzat egiña, apostolutzako lanetan ari diranentzat baizik.

Egilleak eztu aurkezpen-bearrik. Aita Lombardi, bere prediku ta ibillaldiakatik, sobera ezagun ta aipatua zaigu.



Mañaricua (Andrés E. de, Pbro.). LA INMACULADA EN VIZCAYA.
Desclée de Brouwer. Bilbao, 1954.

Erromako Aita Santuak definizio berri bat ematen duan guztietan gerta oi da ta, Sortzez Garbiarena azaltzean ere etzan iskanbilla tipia sortu protestante ta siñisgabeen artean. Fededunak siñiskaj berri bat artzera beartzea, giza-eskubideen kaltetan omen da. Baiña Newman kardenalak —beñiola protestante izandako, eta Eliza Katolikora etorri-berriak— erantzupen egokia eman zien alakoei: Aita Santuak Sortzez Garbia erabakitzean etzun siñiste berririk sortzen, kristau erri osoak lendanik eta ao batez siñisten zuana, onartu ta dogmatzat deklaratu baizik.

Newman jaunaren oarpen ura egiarekin bat datorrela ikusteko, Mañarikuaren liburu au eskutan artu baizik eztezu, irakurle (jakifña, Bizkaiari dagokion neurrian). Erdi Aroan bazegon siñiste ori erriaren errietan sendo sarturik, Aro orrek, il orduko, Elorrioko eliz ospetsua Sortzez Garbiaren omenez utzi baitzigun. Eta arrezkero, zeinbat aitorrera ta ezaupide! Konzezioko monja-etxeak ainbeste lekutan; siñiste onen aldeko erri-ziñitzak (Markina ta Bilbaon), Konzezioko Anaidiak, Sortzez Garbiaren aldareak ainbeste elizatan... Gogoan arztekoa da Lope de Vega-ren aitorrera ere, onek bizkaitarrak (ots, "vizcainos" euskaldun guztiak) misterio onen maitale sutsu ta porrokatu bezela azaltzen baititu.

Fede ori bizkaitarren biotzetan ereintzen Frantziskotarrek parte

aundia izan zuten, dudik gabe, eta Mañarikua jaunak ala aitortu eta bein da berriz adierazten ere du (atsegifñez ta eskerronez diogu). Frantziskotar Ordena XIII gn. gizalditik, balsan arturik eta oso-osoan siñiskai onen alde jarri zan; eta XIV-XV gn. mendea ezkeru, ba-zitun Ordena onek etxe-komentuak Bizkaijan (Bermeo, Izaro, Foru, Bilbao, Orduña). Sortzez Garbiaren aldeko fede goiztar onek eztio gutxi zor Asistarraren semeai.

Zorionak Mañarikua jaunari. Atzo Begoñako Amaren Kondairaz, eta gaur lan berri onekin, Bizkaijan Andre Mariarekiko izan dan atze ospetsua argi osoan jarri baitigu.

VILLASANTE



EUSKALTZAINDIAK ERATUTAKO SARIKETA. Leenengo bi saillei buruz —novelak eta ipui laburrak— Euskaltzaindiak artu dituen erabakiak ezagunak dira, Euskal-erriko egunerokoek zabaldu baitituzte. Ementxe ere, beste orrialde batean, arki ditezke. Aurkeztu diren novelak direla-ta, bi itz esa nai genituzke orratik.

Asko gera saill au landu bear gendukeala batez ere uste dugunok. Gaurkoa delako, oraingo gizakien biotz-adimenak ukitzeko bide erosoagorik eztagoelako —ortara jotzen dugu euskaldunok ere erderaz ari geranean— eta euskera arlo ortan gutxi saiaturia dugulako. Poesiara-ko trebe dugu euskera, olerkari zaar eta berriei eskerrak, baiña bestetarako? Novelak eta ipuiak —ez erri-ipuiak— euskeraz moldatzen alegindu direnek diotenez beintzat, badago oraindik oztopo eta eragozpen ugari.

Uzta ugaria izan da oraingoa: uste baiño ugariagoa. Amaika novela bidali dituzte sariketara —amaika esan nai dut, amar eta bat geiago—, itzuliak eta asmatuak. Gajak ere era askotakoak izan dira. Egilleak, sarri, berriak. Pozbide ederra dugu ortik euskaltzaleok.

Asmatu eta itzuliak erabat aztertu bearra etzen agian gauza ego-
kia. Olakorik franko entzun dugu eta izpidean daudela aitortu bear ori esaten dutenak. Euskaltzaindiak, ordea, etzukean bide ortatik joko, ainbat lan aurkeztuko zela jakin izan balu. Bildur izaki alegia gutxitxo ez ote ziren agertuko. Badirudi uste ez besteko bidea zabaldu duela ixillean euskaltzaleenak.

Leen saria "Aldamin"-ek eraman duela badakigu; geienek ere badakite noski izengoiti ortan erdi-estalirik dagoena Etxaide gaztea dela. "Joanak joan"-en gaia, au ere gauza nabaria, Etxahun'en bizitza da. Baiña aurki argitara irteteko den ezkerro, izango dugu orduan lasai mintzatzeko aukera. Eziogu iñori gozamenik kendu nai alde zurretik.

Bigarren eta irugarren saria, Berasaluze eta Erkiaga'k eramanak, itzulpenentzat izan dira. Biak, Hugo Wast'ena bata eta Simenon'ena bestea, aukerakoak dira gaiez, jende askok gogoz irakurriko dituenetakoa, eta ezin obeki euskeratuak. Eztute alare elkarren antzik. Obe ala: bide askoren artean izango dute datozenek non berezi.

Novela itzuliak ongi daude, baiña gere baitakoak bear ditugu naitaez. Itzulketa ezta prestamena baizik, bestetarako bate-lana. Etxaide'z kanpora ere izan ditugu lan asmatuak: ala ohorezko aipamena irabazi duen Loidi'rena, luzaro gabe argitaratzekoa au ere. Bai au eta bai beste zenbait euskera ederrez jantziak agertu zaizkigu. Pozkarri da benetan, ezpaita gutxi ia maisurik gabe ikasle azkarrak sortzea.

Gaiak bear bada, garbiro esateko, eztira ainbestaraiñokoak, ezta beti trebeki erabiliak ere. Eta ezin-besteen inguruko izkuntzen mailaraiño igo bear dugu gutxienez. Ezpaita bidezko irakurleari euskeraz idaz-lanak, euskeraz daudelako bakarrik, irakurtzeko eskatzea.

Zenbait novelista gaillen berez jaio omen dira novelista. Baditeke. Geienak orratik etengabeko ariak eta ikasiak egin ditu. Zer esana bear da leenbizi; nola esan ere jakin bear orratik. Barrengo utsa, zer esanik eza, eztu iñongo teknikak beteko. Baiña, ez-jakiñean, aspaldidanik irekirik dauden bideak atzera urratzen ibiltzea, alferrik ibiltzea litzake. Eta bide zaar eta berrien berri erdal-noveletan ikasi bearrean arkitzen gera.

Lanbide onek bere gisako izkera ere eskatzen du: ariña, lasterra, txairoa, arrunta, egunorokoa. Prosa lasaia egiteko lasai ari bear, ez larri eta arnas-estuka gure artean zenbait aritzen diren gisa. Utsik gabeko prosa nai lukete sortu eta eztira oartzen utsik gabeko mintzaera ori bizirik gabekoa izaten dela sarritan. Gai ontan, lasai esan genezake, Euskaltzaindiaren sarikeratara agertu direnetarik asko bide onetik abiatuak eta arras aurreratutak agertzen zaizkigu. Ezta ori gutxi, gaurko eta batez ere gerorako.



PAUL CLAUDEL. Iliberria dugu frantses olerkari garai au, 1868'an jaioa.

Gaztetan, aurtzaroan ia, fedea galdu zuen. Gero, 18 urte zituelarik, sinismena itzuli zitzaion bat-batean. Non ta noiz —elizan sartzea gertatu zitzaion batean, “Magnificat” entzuten ari zela—, berak kontatu digu. Baiña, berberak ere ba ote zekien nola?

Fede ortan iraun du tink eriotz-arte. Emendik asi bear bere bizitza ta idaz-lanak adituko baditugu. Lege zaarreko kristaua zen, kristautasunera itzulia izanagatik, batere zalantzarik gabea. Eta, bere gauza guztietan bezala, gogor xamarra ere bai. Gide'rekiko ar-emanetan azaldu zuen etzeukala fedegabeengana beraztasun gelegirik.

Lurbira osoan barrena ibillia bere lanbidea zela bide, etzuten ez beste lurraldeek ez oiturek aldatu. Frantzia'ko edozien baserritar bezain atxikia zegoen bere lurrari eta barren eta kanpo, izaeraz eta itxuraz, bazuen nekazari jator, sendo eta egoskogorraren eitea. New York'en beintzat ez omen dute inoiz izan frantsesez ain ongi eta ingelesez ain gaizki egiten zuen embaxadorerik.

Gure artean —landare zaarrek ain sustrai iraukorra duten Euskal-erri ontan— sortu balitz, ezkendukean arrotz egingo. Nolapait ere gogaide genduelarik, eztu orratik gure poesian jarraitzaille askorik izan, dakidanez. Bere bertsoek badute zaar-usaia darion alako osotasun eta indar berezia, gure aldi aldakor eta zalantzati ontan oi ezten gisakoa. Moldez —Péguy'renak dakarzkite gogora— era berrikoak, berriak direlako edo zaarraren zaarrez ala diruditelako: itz lau eta neurtuaren arteko letari luzea. Beti bateko lelo orrek badu ordea mami izkutua.

Azken urteetan batez ere, antzerki-lanek zabaldu dute geienbat azen izena: “Le Soulier de Satin”, “L'Annonce faite à Marie”, “Christophe Colomb”, “Jeanne au bûcher”, ezagunenak baizik ez aipatzeko.

Bizitzaren neurrikoa izan du eriotza. Bere azken itzak, etxekoei: “Uztaidazute orain pakean iltzen Eztut beldurrik”. Berak itxi ditu begi-belarriak, barren-izketa ixillari bakarrik adi, eriotzak itxi baiño leen.

L. M.



OARGUI'REN BIGARREN BATZALDIA. Oargui'ko gaztien euskera-ganoko leia ikusirik ba-dugu euskaltzaleok zertaz poztu. Izan ere, gazteok arikorrek ditazu, lenengo batzaldiari jarraiki bigarrena etorri baitzajo eta bigarrena ospatu orduko irugarrena iragarri baitigute.

Jorraillaren 3'an, igandearekin, izan zen Donostia'ko Getari-kaleko Oargui-etxean bigarren txapelketako sari-banaketa-jaialdia.

Jaialdi atsegingarri eta anaiartekoa benetan! Lenen itzak Lagunarte ontako Zaldia jaunak ogutzi zitun beren asmoak agertuz eta "Seminario Julio de Urquijo"ri eskerrak emanaz saritarako bazkun onek opa dien laguntasunagatik.

Ondoren, lerro auen idazleak solas laburtxo batean goraiatu zun Oargui'ren eragin-lana euskal-arloai buruz eta sariketako gora-bereri eman zigun.

Aurreko txandan bezala, epaimairako Arrue ta Mitxelena jaunak eta onokoxeko au izendatu zituzten. Irukote onen erabakiz ona sariak nola banatu ziran.

1.º mailan. (Gaia aukerakoa). Lenengo saria, Orixe'ren "Eguneroko Meza-Bezperak", Berasaluze'tar Sabin'i, "Kierkegaard'en azia Unamuno'gan lore" deritzaion philosophi gaiezko idazlanagatik.

Bigarren saria, Aita Onaindia'ren "Milla euskal olerki eder", deritzan olerki sorta liburua, Guarrotxena'tar Peru'ri "Lili garbiaren intziria" deritzan irakurgai xamurragatik.

2'gn. mailan. (Gai aukerakoa). Lenengo saria ("Milla euskal-olerki eder"), Eloseg'i'tar Alberto'ri bere olerki bildumatxoa dala-ta. Bigarren saria ("Ama-semeak Arantzazu'ko kondairan") Garixo'tar Fernando'ri "Elur maluta" deritzan ipui politagatik.

Lenen mailleko irabazleak bizkaitarrak dituzu, Gernika inguru-koak nunbait eta orain Arantzazu'ko prantziskotar komentuan praille dagoz. Bigarren maillekoak donostiarrak dira, euskaldun berri-herriak, orain iruzpalau urte ezkeroz gure mintzaira ikasten diardutenak.

Lenengo mailleko lanetan sarituak bi bakarrik izan dira, geiagorako ezpaitzen irixten... dirurik (betiko leloa!), baiñan epaimai onek idazle saiatuen zuzpergarri jakin-erazi nai luke benetan atsegingarri izan zaizkiola ondorengo lan oek: "Problema kritikoaren erabakitzea" (Iturria'tar Joxe), "Urruti-min" (Txillardegí), "Kurtzipizio gañean" (Arakama'tar Ander), "Eratik gaiera" (Morga), "Gizonaren azken jo-muga" (Arru-muño), "Illezkortasunaz" (Etxebeste'tar Iñaki) eta Gabriel Aresti Bilbotar gaztearen olerki sakon eta lilluragarriak. Gaiñerako lan guziak edo geienak beintzat on-onak dirala jakin-erazi dezagun. Zorionak danoi biotz-biotzez.

Mitxelena jaunak, sariak eman-ala, galdekizuntxo ernegarriak egin zizkien irabazleai. Baita parra lasai egiteko aukera sortu ere Pernando'rekin. Ezta iñundik ere Amezketarra, baiñan Donostia'n gatzik falta' eztelesa ederki aditzera eman zigun gure Garixo'k.

Ondoren, epaimaiko ta jaialdira eldu ziren idazleen artean urrengo

batzaldirako baldintza oñarriak tajutu ziran. Ona emen euskal-idazle ororen jakingarri:

Lenengo maillan.—1.º Euskalerrri'ko ixtori-gai bat XVIII'gn. mendetik artuta. Lau edo bost kuartilla gutxieneko.

2'gn. Ederti-irizkizuna edo arte-kritika, Nolanaiako kritika-gai erabilii diteke, literatura, musika, philosophia, pintura, eskultura, zinema t. a. Ontan ere lau edo bost kuartilla gutxieneko.

Bigarren maillan gaia aukeran eta lenengoen orri-neurria. Itzulpenak eztira onartuko. Olerkirik ez beza iñork igorri, baztertuak izanen baitira. Lanok Garagarrillaren lenengorako aurkeztu bitez.

Oargui'ko jaialdiaren amaigarri esan dezagun solasaldi politik sortu zela "existenzialismoari" buruz Txillardegia ta Mitxelena jaunen artean. Txillardegia ez genun konforme sari-irabazlearen iritziarekin existenzialistai buruz eta Mitxelena'k agindu zion Txillardegia gazte pizkorrari Berasaluze'ren oker-usteak zuzenduz lanik egiten ba'zun, arenaren alboan argitaratuko zitzaioala aldizkari ontan.

Txillardegia'k itzetik ortzera baiezkoa agindu zion eta laister gozatu gera noski bere idazlan ernegarria ausnartuz.

Ta gaurko, berriketarik eski.

E'TAR. Y.



PUBLICACION
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS
(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR.
por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 15 Ptas.

Suscripción anual: 40 »

EGAN: Ejemplar suelto: 10 Ptas.

Suscripción anual: 35 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y EGAN: 75 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales.
Número suelto: 10 Ptas.

Redacción: Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN